

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

2018-2019 IKASTURTEA

**AUTISMOAREN ESPEKTRU NAHASTEAN
DUTEN PERTSONEN AISIALDIA ETA
DENBORA LIBREAREN ANALISIA**

Egilea: Amaia Boto Gaztelurrutia

Zuzendaria: Leire Darretxe

Leioan, 2019 ko Maiatzaren 28an.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	1
2. MARKO TEORIKOA	2
2.1. LEO KANNER, HANS ASPERGER ETA LORNA WING.	3
2.2. DSM V	4
2.3. TEORIA EZBERDINAK	5
2.4. AEN DUTEN PERTSONEN AISIALDIA ETA DENBORA LIBREA	5
2.4.1 Aisialdia/ denbora librea	5
2.4.2 AEN duten pertsonen aisialdia eta denbora librea	6
2.4.3 Aisialdi inklusiboa	8
3. METODOLOGIA	10
3.1 Metodologia kualitatiboa	10
3.2 Apnabi	10
3.2.1 Apnabik eskaintzen dituen aisialdia eta denbora libreko klubak	11
3.2.2 Taldearen aurkezpena	12
3.3 Datu bilketarako tresnak	13
a) Behaketa parte hartzailea	13
b) Talde dinamikak	14
c) Elkarrizketa	15
4. EMAITZAK ETA DISKUSIOA	16
4.1 Esparruko arduradunaren ikuspegia eta taldeko kideen ikuspegia	16
4.2 Ekintza zuzenetik kanpo burutzen den lana: ekintza baino aurretiko batzarra	19
4.3 Apnabiko klubean egiten diren ekintzak	21
4.4 Ekintza zuzenetik kanpo burutzen den lana: ekintza osteko batzarra	23
5. ONDORIOAK	24
7. BIBLIOGRAFIA	26
8. ERANSKINAK	28
1. ERANSKINA: AUTISMOA DSM-AREN IKUSPEGITIK	28
2. ERANSKINA: TEORIA EZBERDINAK	30
3. ERANSKINA: AISIALDIA ETA DENBORA LIBREA, AISIALDIRAKO HEZKUNTZA	32
4. ERANSKINA: AISIALDI INKLUSIBOA	33
5. ERANSKINA: APNABI-KO ZERBITZU EZBERDINAK	33
6. ERANSKINA: JAKINARAZPEN BAIMENA	35
7. ERANSKINA: BEHAKETA PARTE HARTZAILEAREN BIDEZ JASOTAKO DATUAK BILTZEKO TAULA	36
8. ERANSKINA: TALDE DINAMIKA	36
9. ERANSKINA: APNABIKO AISIALDIA ETA DENBORA LIBREKO ARDURADUNARI ELKARRIZKETA	40
10. ERANSKINA: APNABIKO AISIALDIA ETA DENBORA LIBREKO KLUBEAN LAN EGITEN DUEN 1. BEGIRALEARI ELKARRIZKETA	56
11. ERANSKINA: APNABIKO AISIALDIA ETA DENBORA LIBREKO KLUBEAN LAN EGITEN DUEN 2. BEGIRALEARI ELKARRIZKETA	63
12. ERANSKINA: PROGRAMAZIOA ETA EBALUAZIOA EGITEKO TAULA	69
13. ERANSKINA: TALDEKO GASTUEN ETA DIRU-SARTZEEN INGURUKO JARRAIPENA EGITEKO TAULA	70
14. ERANSKINA: BEHAKETAREN PARTE HARTZAILEAREN DATU BILKETA	70

AEN DUTEN PERTSONEN AISIALDIA ETA DENBORA LIBREAREN ANALISIA

Amaia Boto Gaztelurrutia

UPV/EHU

LABURPENA:

Aisialdia eta denbora librea, giza eskubide bezala onartuak izanik, oinarrizkoa bilakatzen da pertsona guztion eskubide hau bermatua izatea. Honetarako, ezinbestekoa da komunitateak aisialdiaz gozatzeko beharrezkoak diren aukerak eskaintzea eta denontzako eskuragarria den aisialdirako ekintzak sortzea. Hau honela izanda, hurrengo azterketa txiki honek Autismoaren Espektru Nahastea duten pertsonen Aisialdia eta Denbora Librea aztertzea du helburu. Horretarako, metodología kualitatiboan oinarrituz eta elkarrizketa, behaketa eta talde dinamikak erabiliz, beharrezkoa izan zaidan informazioa biltzeko aukera izan dut. Ondorio bezala, ikus daiteke komunitateak eskaintzen dituen aisialdiko ekintzak ez direla denontzako eskuragarriak ezta inklusiboak ere, beraz, esparru honetan hobetzeko asko dago oraindik.

Autismoaren Espektru Nahastea, aisialdi inklusiboa, eskubidea, eskuragarria, komunitatea

RESUMEN:

El ocio y tiempo libre han sido aceptados como un derecho humano, por lo que supone algo básico el garantizarlas a todas las personas de la sociedad. Por ello, es necesario que la comunidad ofrezca oportunidades para disfrutar del ocio y cree actividades accesibles. Así, el siguiente proyecto pretende ahondar y estudiar el ocio y el tiempo libre de las personas con Trastorno del Espectro Autista y, para ello, se ha utilizado una metodología cualitativa basada en diferentes entrevistas, observaciones participativas y dinámicas de grupo. Asimismo, se ha llegado a la conclusión de que las actividades de ocio que se ofrecen no son ni accesibles para todas las personas ni inclusivas, por lo que hay mucho que mejorar todavía en este aspecto.

Trastorno del Espectro Autista, ocio inclusivo, derecho, accesibilidad, comunidad

ABSTRACT:

Once leisure has been accepted as a human right, it is basic to guarantee it for everybody. Therefore, the community needs to provide the required opportunities and create accessible activities to enjoy everybody's free time. At this point, the following project intends to study the already mentioned leisure of people with Autism Spectrum Disorder with a qualitative methodology; such as interviews, group dynamics and participatory observations. As a conclusion, it has observed that the existing activities offered by the community are not accessible enough nor inclusive for everybody so there is still a lot to improve in this aspect.

Autism Spectrum Disorder, inclusive leisure, right, accessibility, community

1. SARRERA

Autismo Espektru Nahastea (AEN) duten pertsonak, garapen neurologikoan nahasteak dituzten pertsonak dira. Nahaste hauen ondorioz, hainbat ezaugarri garatu izan dituzte eta aurrerago ikusiko dugunez, pertsona hauek hainbat oztopo adierazten dituzte bizitzako arlo ezberdinetan.

Gradu hau ikasten hasi baino aurreragotik, AEN-en inguruko interesa piztua neukan, aurretik egindako ikasketen ondorioz. Gainera, nahaste hau duten giza taldeekin lan egiteko aukera ere izan dut, bizitzako arlo ezberdinetan (aisialdian, egunerokotasuneko ekintzetan, kirol ekintzetan, etab).

Esan beharra dago, gradu honetan AEN ez dugula sakonki landu, hainbat nahaste eta desgaitasun ezagutu ditugu baina denak maila orokor batetik. Hau honela izanda, gradu amaierako lan honen bidez, AEN-aren inguruan azterketa egitea eta sakonki ezagutzea aukera egokia zela iruditu zitzaidan.

Nahaste hau duten pertsonak, aurrerago ikusiko dugun lez, inguruarekin eta beste pertsonekin erlazionatzeko eta komunikatzeko zailtasunak adierazten dituzte; hori dela eta, aisialdian begia jartzea ezinbesteko zerbait dela iruditu zait. Izan ere, aisialdia zerbait positibo bezala kontsidera genezake eta esparru honen bidez, komunikatzeko eta erlazionatzeko aukera eskaintzen da. Beraz, oso esparru aberasgarria dela deritzot, bai pertsonaren garapen integralerako bai besteekin erlazionatzen ikasteko.

Beraz, hurrengo lan honen helburu nagusia, AEN duten pertsonen aisialdia eta denbora libre aztertzea izan da. Ikerketa txiki hau aurrera eramateko, Apnabi elkarte oinarritu naiz, izan ere, Bizkaia mailan AEN-aren erreferentziazko instituzioa da eta orain dela lau urtetik hona, elkarte honetako esparru ezberdinetan lanean aritu izan naiz. Zehatzagoak izateko, Apnabik eskaintzen duen aisialdia eta denbora libre zuzenduta dauden “Klub” izeneko ekintzetan oinarritu naiz. Klub horiek talde txikiz osatuak daude eta talde txiki horien helburua aisialdia eta denbora librearen kudeaketa da. Beraz, talde txiki horietako bat hartuko dut erreferentzia nagusi bezala eta bertatik bideratu dut nire hurrengo analisia.

Guzti hau kontuan izanda, lana bost ataletan banatu dut. Lehenik eta behin, gaiaren eta testuinguruaren inguruko hurbilketa bat egiteko marko teorikoan, historian zehar autismoak eta geroago, AEN-ak izan dituen aldaketez hitz egin dut, hainbat autore ezberdinen inguruko informazioa bilduz, esate baterako, Leo Kanner, Hans Aspeger eta Lorna Wing. DSM-a erreferentzi bezala erabiliz, AEN duten pertsonen ezaugarrien sailkapen txiki bat ere azaltzen da lanean.

Bestalde, nahaste honekin zuzenean lotuta egon diren edo gaur egun ere dauden hainbat teoria aztertu ditut (adimenaren teoria eta ama hozkailuak). Analisia, AEN duten pertsonen aisialdia eta denbora librean oinarritu dudanez, garrantzitsua iruditu zait aisialdia eta denbora librearen kontzeptuak argi definitzea, askotan sinonimo bezala hartzen baititugu. Marko teorikoarekin bukatzeko, AEN duten pertsonentzako aisialdia eta denbora librearen zein garrantzitsuak diren azaltzen da, esparru honen ezaugarriak eta abantailak kontuan izanda.

Honen ostean, gaiaren inguruko analisi hau burutzeko, zein motatako metodologia erabili dudana azaltzen dut. Datu bilketa egiteko erabili ditudan tresna ezberdinak azalduz eta jasotako datuak plazaratuz. Jasotako emaitza horiek, hausnarketarako tartea eskaini didate eta ondorio batzuk atera ditut. Lanarekin bukatzeko, hobetzeko proposamenak azaltzen ditut, erreferentzia bibliografiko eta eranskinekin bat.

2. MARKO TEORIKOA

Gaur egun, esan dezakegu, AEN-ren inguruan eskuragarri dugun informazioa nahiko zabala dela, antzinako egoerarekin konparatuz. Urteak pasa ahala eta mota askotako azterketak egin ostean, aurrerapauso asko eman dira eta nahaste honen inguruko ezagutzak handiagoak eta sakontzen joan dira. Gainera, interpretazio asko jaso izan ditu nahaste honek, mota askotakoak eta kontrajarriak.

Autismoa antzinatek ezagutzen da, hau da, ez da kontzeptu berri bat. Artigas-Pallarès eta Paula-k (2011) dioten bezala, 1911. urtean, kontzeptu hau, jada literatura medikuan erabiltzen zen eta 1923. urtean, autismoren inguruko azalpenak ematen hasi ziren. Izan ere, garai hartan nahasmendu honen ezaugarriak adierazten zituzten hainbat egoera eta ume agertu ziren. Esan beharra dago, autismoak ikuspegi medikua hartu zuela garai honetan eta eskizofreniaren ezaugarri bezala kontsideratzen zela.

2. 1. LEO KANNER, HANS ASPERGER ETA LORNA WING.

Douglak (2014) dioten bezala, 1943. urtean Leo Kanner eta 1944. urtean Hans Asperger, gai hau aztertzen ari ziren eta nahaste honen inguruko azalpenak eman zituzten, tesi ezberdinak sortuz. Beraien nahia momentu horretan, sortutako azalpen horien bitartez, nahaste honen interpretazioa eta ezaugarriak mugatzea eta zehaztea izan zen. Gaur egungo autismoaren esanahia Leo Kanner-i esker ezagutzen da. Izan ere, 1935. urtetik aurrera, Kanner nahaste hau mugatzen eta zehazten hasi zen, esanahi egoki bat bilatzeko eta beste nahaste batzuetatik ezberdintzeko asmoz. Garai hartan, autismoaren eta beste nahaste batzuen arteko muga edo tartea zein zen jakitea nahiko zaila baitzen. Hasiera batean, “autismo infantil precoz” bezala izenpetu zuen autismoa, hainbat ezaugarri adieraziz: pertsonetikiko kontaktuan isolamendu sakona, identitate mantentzeko nahi obsesiboa, objektuekiko harreman handia, hitzen bidezko komunikazioaren alterazioa, mututasun bezala adieraziz edo beste mota bateko lengoia erabiliz. Bere testuan adierazten duen bezala, Kanner-ek autismoaren inguruko koadro kliniko zehatza sortu zuen eta horren bitartez, errazagoa bilakatu zen autismoa, beste nahaste batzuetatik ezberdintzea.

Honen inguruan, Kanner-ek 1943. urtean bere lanik garrantzitsuenetarikoa sortu zuen eta bertan, 11 umeen hausnarketa egin zuen, zortzi mutil eta hiru neska izan ziren lan horren lagina. Sortutako lanak, “Autistic disturbance of affective contact” izena izan zuen eta bere hausnarketa egin ostean, “alteraciones autísticas de contacto afectivo” izena jarri zion garai hartako autismoari (Gerdel, 2017). Douglas-en (2014) esanetan, Kanner-ek ume horien ezaugarri komunak jaso zituen: harremanak sortzeko gaitasun eza, lengoian alterazioak, gehienbat komunikazio sozialean, testuingurua aldaketa gabe mantentzeko nahi obsesiboa, kasu batzuetan gaitasun berezien agerpena, botere kognitibo handia baina bere atentzio lekuetara murriztuz, itxura fisiko normala, jaiotzetik lehenengo sintomen agerpena, etab.

Kanner-ek egindako ekarpenetatik garrantzitsuena edo indar gehien izan duena, autismo nahastea, neuro-garapenean oinarritutako nahaste bat dela susmatzea izan da. Hortik abiatuz, izen hau eman zion autismoari “componentes constitucionales de la respuesta emocional”(Douglas, 2014).

Garai hartan, 1944. urtean Asperger-ek ere autismoaren inguruan hitz egin zuen sortutako tesi doktoralean “Die autistischen psychopathen ins kindesalter”(Psicopatía autística en la infancia). Asperger-ek, sei eta hamaika urte zituzten lau ume aztertu zituen. Ume hauek, interakzio sozialean eta egokitzapen kognitibo eta berbalean zailtasunak adierazten zituzten. Asperger-ek bere tesian, jada argitu zuen bi urteko ume batean identifikatu daitezkeela bizitza osoan zehar mantenduko diren ezaugarri bereizgarri batzuk (Gerdel, 2017).

Esan beharra dago, Asperger-en lanak alemanez idatzita zeudela eta hori dela eta, bere lanek ez zuten hainbesteko zabalkuntza ezta garrantzirik izan eta kasu askotan, alde batera utziak izan ziren. Hau honela izanda, 1979.urtean Lorna Wing, Asperger-en lan horiek ingelesera pasatzen hasi zen eta honek Asperger-en lanei garrantzia eman zion (Douglas, 2014). Garai hartan, Lorna-k, AEN kontzeptua sortu zuen eta kontzeptu horren barruan txertatzen ditu autismoa eta Asperger nahastea ere bai.

Reaño-k (2014), gai honekin lotuta, Lorna Wing-ek, (1979) “triada de Wing” kontzeptua sortu zuela adierazten du. Wing-ek, triada horren bitartez, nahaste honekin lotutako hiru esparru ezberdin argitzen ditu eta honekin, AEN oinarrizko sintomatologia adierazi zuen. Izan ere, AEN duten pertsonak, zailtasunak adierazten dituzte hurrengo hiru esparru hauetan:

- Komunikazioa: Komunikazio berbal eta ez berbalean zailtasunak.
- Harreman sozialak: elkarrekikotasunean zailtasunak.
- Interesak: intereseko gaietan eta aukeratutako ekintzetan patroi errepikakorak.

2.2. DSM V

Del Barrio-k (2009) adierazten duen bezala, 1952. urtean, lehenengo DSM-a (Diagnostic and Statistical Manual of Mental Disorders) sortu zen, dokumentu honetan, nahasmendu ezberdinen inguruko informazioa jasotzen eta adierazten hasi ziren; sintomatologia, ezaugarri eta beste hainbat irizpide kontuan izanda. Modu honetan, edozein nahasteren inguruko diagnostiko bat egitea errazagoa bilakatu zen.

Urteen poderioz, hainbat DSM sortzen joan ziren eta horietako bakoitzean, autismo nahastearen inguruan hainbat aldaketa egiten joan dira, ahalik eta definizio zehatz bat eman arte (gehiago jakiteko ikus 1.eranskina).

2.3. TEORIA EZBERDINAK

Aurretik esan bezala, autismoak historian zehar hainbat aldaketa jaso ditu eta kontzeptu honen eboluzioa oso nabaria izan da. Hori dela eta, historian zehar nahaste honekin lotutako hainbat teoria eta hipotesi sortu dira (gehiago jakiteko, ikus 2.eranskina).

2.4 AEN DUTEN PERTSONEN AISIALDIA ETA DENBORA LIBREA

Lehenik eta behin, aisialdiaren eta denbora librearen inguruko ezberdinketa egitea ezinbestekoa dela deritzot. Kasu askotan, aisialdia eta denbora libre kontzeptu berbera bezala erabiltzen ditugu eta honen ondorioz, askotan sinonimo bezala ulertuak izaten dira.

2.4.1 Aisialdia/ denbora libre

Lazcano-k eta Madariaga-k (2016) dioten bezala, aisialdia pertsona batek duen denbora librearen erabilgarritasuna baino zerbait gehiago dela kontuan izan behar dugu. Antzina, lanetik kanpoko denbora, aisialdian bilakatzen edo aisialdi bezala kontsideratzen zen. Gaur egun, pertzepzio hau aldatu egin da, izan ere, pertsona batek bere denbora librean praktikatzeko duen edozein ekintza ezin da aisialdi bezala kontsideratu. Beraz, aisialdia garapen pertsonaleko esparru bezala ulertu behar dugu eta kontuan izan behar dugu, gizakiaren garapen integrala sustatzeko beharrezko esparrua dela eta gizakiaren eskubide bat dela. Autore hauek diotenarekin bat eginez eta gizakia, izaki sozial bezala kontsideratuz, aisialdia garapen sozialeko esparru bezala uler genezake, kohesio soziala, komunitateko bizipen eta garapen ekonomikoko elementu bat lez.

Lazcano-k eta Madariaga-k (2016), erreferentzia zuzena egiten diote De Grazia-ri (1966) hurrengo hau adieraziz: denbora librea pertsona baten denbora kalkulatzeko modu bat bezala ulertu genezake; aisialdia, ordea, izateko modu bat bezala ulertzen dugu, gizakiaren baldintza bat bezala.

Esan beharra dago, aisialdiaren definizio zehatz bat ematea nahiko zaila dela, izan ere, tokiaren eta denboraren arabera modu batean edo bestean ulertzen da, tokiko ideologia, filosofia eta ikuspuntuan oinarrituz.

Aisialdia eta denbora librearen inguruko ezberdinketa horretatik bideratuta, Cuenca-k (2011), gaur egun aisialdia lanetik kanpoko jarduerekin identifikatzen dugula dio, dibertsioarekin eta gozamenarekin. Esan beharra dago, kontzeptu hau pertsonaren bizipenekin lotuta dagoela eta bizi den testuinguruarekin. Gainera, aisialdia gizakiaren intentzioaz sortutako esperientzia da, giza eskubide eta garapen arlo bezala ulertua. Beraz, guzti hau kontuan izanda, esan dezakegu aisialdia, hezkuntza arlo bezala ere uler dezakegula, izan ere, praktika berriei erantzuna emateko gaitasunak ikasteko beharra ikusten da eta behar hau, aisialdiarekin ikasten dela ikus daiteke (gehiago jakiteko, ikus 3. eranskina).

2.4.2 AEN duten pertsonen aisialdia eta denbora librea

Behin kontzeptu hauek argituak izanda, gai nagusian oinarritzeko ordua da, hau da, AEN duten pertsonen aisialdia eta denbora librean jarriko dugu begirada. Honetarako, aurretik aipatu ditudan AEN duten pertsonen inguruko ezaugarriak kontuan izan beharko ditugu.

AEN duten pertsonen ezaugarri esanguratsuenetariko bat, pertsonekin harremanak izateko eta besteekin komunikatzeko dituzten oztopoak dira. Hau honela izanda, askotan pertsona hauen aisialdia eta denbora librea, mugatua eta baldintzatua ikus daiteke. Beraz, ezinbestekoa iruditzen zait, pertsona hauen aisialdia eta denbora librearen inguruan lan egitea, izan ere, bizitzako esparru zehatz honetatik abiatuz, egunerokotasuneko beste esparru batzuetan onurak edo aurrera pausuak eman daitezke.

AEN duten pertsonen ezaugarriak kontuan izanda, aisialdia eta denbora libreak izan ahal dituen abantailen inguruko azterketa egiteko, Alcolea-ren (2010) testua erabili dut

oinarri nagusi bezala. Alde batetik, AEN duten pertsonen harreman sozialak sortzeko eta mantentzeko trabak izaten dituzte, harreman hauekiko interes gutxi adieraziz. Ezaugarri hau kontuan izanda, aisialdiaren bidez, beste pertsona batzuekin harremanak izatea sustatu daiteke, ekintza eta espazio ezberdinak bere berdinekin konpartitzeko aukera eskainiz. Esparru positibo batean, beste pertsonetako komunikazioa eta interakzioa lantzeko leku egokia bilakatzen da aisialdia.

Beste alde batetik, AEN duten pertsonen, ezan bezala, komunikatzeko oztopoak adierazten dituzte, hitzeko komunikazioan eta hitzik gabeko komunikazioan ere. Honekin lotuta, komunikatzeko intentzio falta adierazten dute, bere nahiak adierazteko zailtasuna, ekolaliak eta komunikatzeko lengoia eskasa. Honegatik, aisialdia aberasgarria bilakatzen da, izan ere, aisialdiko ekintzetan, pertsonen nahiak eta desioak kontuan izaten dira, horrek, bakoitzak bereak espresatzea ekartzen du eta beste kideekin konpartitzea. Bakoitzaren eta bere kideen nahiak eta desioak kontuan izanda, mota askotako ekintzak sortzen dira, baina ekintza horiek burutzeko, ezinbestekoa da bakoitzak jardueren inguruko iritzia ematea eta egun horretan egingo den ekintza denon artean erabakitzea. Ikus daitekeenez, aisialdiak pertsonen erabakiak hartzeko aukera ematen dio, edo gutxienez, esparru hori sustatzeko aukera. Izan ere, bakoitzak bere interes eta nahien inguruan hitz egin beharko du, komunikatzeko beharra izanez. Horren ondorioz, denon artean dauden nahi eta desio horiek kontuan izanda, ekintza edo jarduerak ezberdinak sortzen dira. Beraz, garrantzitsua bilakatzen da erabakiak hartzen eta bakoitzaren desioak komunikatzen jakitea (Alcolea, 2010).

Guzti hau kontuan izanda, Alcolea-k (2010) hurrengo hau ondorioztatzen du eta nire ustez, hurrengo esaldi hauek presente izatea garrantzitsua da: aisialdiak eskaintzen duen ongitasun emozionalak kalitatezko bizitza ematen dio pertsonari. Pertsona bakoitzak ezaugarri batzuk ditu, beraz, pertsona bakoitzak ondo pasatzeko duen modua ere, ezberdina izango da. Pertsona batek, bere inguruan gertatzen ari denaren inguruko informazioa edukitzea ezinbestekoa da, antsietateko egoerak ekiditeko. Bukatzeko, bakoitzak behar dituen komunikazio eta informazio tresnak modu egokian erabiliz, jarrera erronkariak ekidituko ditugu.

Beraz, ikus daiteke aisialdia eta denbora librearen kudeaketa egokiak, AEN duten pertsonengan eragin eta ondorio aberasgarriak ekartzen dituela. Hori dela eta, garrantzitsua da arlo honetan beraiekin lan egitea.

2.4.3 Aisialdi inklusiboa

Behin aisialdia eta denbora librea AEN duten pertsonen ezaugarriekin lotuta, gaur egun oso latente dagoen kontzeptu baten inguruan hitz egitea ezinbestekoa da. Desgaitasuna duten pertsonen aisialdiak eta denbora libreak gero eta garrantzi gehiago hartu du, izan ere, aurretik esan dugun bezala gizakiaren eskubide bat da eta beraz, komunitateko edozein pertsonak aisialdiaz gozatzeko aukera eta eskubide osoa du. Hainbat arrazoi medio direlarik, desgaitasuna duten pertsona askok aisialdia eta denbora libreaz gozatzeko hainbat oztopo aurkitzen dituzte. Ildo honetatik, aisialdi inklusiboa kontzeptua sortzen da.

Inklusio kontzeptuak, Madariaga-k, Lazcano-k eta Doistua-k (2011) diotenaren arabera, giza eskubideei erreferentzia egiten die eta denontzako gizarte baten aldeko defentsa sustatzen du. Honekin batera, denon beharrak asetzeko gai den komunitate baten beharrean oinarritzen da, pertsona bakoitzaren baldintza eta berezitasunak kontuan izan gabe. Kontzeptu hau, ez dago zuzenean desgaitasunarekin lotuta, hau da, ez dio soilik desgaitasuna duten pertsoneri erreferentzia egiten, baina egia da, gaur egungo inklusio kontzeptua desgaitasuna ulertzeko moduan oinarritzen dela. Inklusioak hiru mailatan lan egiten du: presentzia (gizartean egoteak esan nahi duena), parte hartzea (pertsona guztiek ekintzetan parte hartu ahal izateko, baldintza egokiak eman behar dira) eta bukatzeko, ahalmenen garapena (horretarako, garapen pertsonala oztopatzen duten elementuak identifikatu eta gainditu egin behar dira).

Edozein pertsonaren bizi kalitatea egokia izateko, oso garrantzitsua da aisialdia eta denbora librerako eskubidea ere bermatua izatea, aisialdiak pertsonari bizi kalitatea ematen baitio. Garrantzitsua da ere, desgaitasuna duten pertsonen eskubideak bermatzea, bazterkeria egoeran ez egoteko eta komunitatearen parte izateko. Beraz, aurretik azaldutakoaren ondorioz, aisialdi inklusiboak indar handia hartzen du gaur egungo gizartean.

Madariaga-k (2004) dioen bezala, aisialdi inklusiboak honako esparru hauei garrantzia ematen die:

- Aisialdirako eskubidea:
 - Diskriminazio ezean oinarritua

- Ondo pasatzeko eta goatzeko eskubidea azpimarratzen du
- Desgaitasuna duten pertsona taldeetatik eskaria egiten da
- Pertsona guztien onuretan oinarritzen da

- Kalitatezko aisialdia:
 - Parte hartzaile guztientzat onuragarriak diren ekintzak dira
 - Testuinguru natural batean oinarritutako aisialdiko programen garapena sustatu
 - Pertsona bakoitzarentzako beharrezkoak diren laguntzak eta dedikazioa bermatu behar da

- Aisialdi partekatuaren dimentsio soziala:
 - Ikasketa eta ezberdintasunen aurreko errespetua sustatzen ditu
 - Pertsona ezberdinekin aisialdiko esperientziak izatea aberasgarria da
 - Dibertsitatea oinarri bezala onartzen duen gizarte baten sorrera

Aurreko puntuak kontuan izanda, Madariaga-k (2004) aisialdi inklusiboaren inguruko laburpen txiki bat egiten du, beraz, aisialdian inklusiboa:

- Giza eskubide bezala onartzen da
- Pertsona guztiei zuzentzen da
- Eredu soziologikoan oinarritzen da
- Pertsona guztien inklusio osoaz apustu egiten da edozein esparrutan
- Estrukturen erreforma bat dakar
- Komunitatea eta ingurune soziala erreferentzia bezala onartzen dira
- Pertsona guztientzako eskaintza komun bat planteatzen da
- Organizazio inklusiotik sortzen da
- Formazio profesionalaren beharra du

Aisialdi inklusibo baten alde borroka egiteko, inklusio printzipioa kontuan izan behar da, pertsona bakoitzaren beharrak asetzeko testuingurua egokitu eta pertsona bakoitzarentzako eskaintza moldatuko da, arrazoi ezberdinak direla eta (Madariaga, 2004).

Cuenca-k (2011) ere aisialdi inklusiboaz hitz egiten du. Inklusioa, balio, sinesmen eta ekintza sistema baten aurrean dugun jarrera izango litzateke. Pertsonen eta taldeen artean dauden ezberdintasunak, denontzako onura bezala ikusiak edo onartuak izan beharko litzateke. Inklusioak, hurrengo balioak aintzat hartzen ditu: onarpena, pertenezia, harreman pertsonala, komunitate guztien parte hartzea, etab. Aisialdia, denon eskura egon beharko litzateke, hori izango da aisialdi inklusiboaren oinarrietako bat. Horretarako, garrantzitsua da aisialdian dauden oztopoak aztertzea eta murriztea, aisialdirako hainbat baliabide sortzea eta kasu honetan, AEN duten pertsonen ezaugarri nagusiak ezagutzea, gehienbat, aisialdiarekin erlazionatutakoak (gehiago jakiteko, ikus 4. eranskina).

3. METODOLOGIA

3.1 Metodologia kualitatiboa

Gradu amaierako lan hau egiterako orduan, AEN duten pertsonen aisialdia eta denbora librean sakonki aztertu nahi izan dut, horretarako metodologia kualitatiboa erabili dut. Ikerketa kualitatiboa azken finean, errealitate edo egoera baten analisisa da, errealitate horren parte hartzaileak diren pertsonen bitartez egoera edo errealitate hori ulertu eta interpretatzeko helburuaz. Errealitate honen inguruko analisisa egiteko, tresna ezberdinak erabiliz, mota ezberdineko informazioa jaso dut.

3.2 Apnabi

AEN duten pertsonen aisialdia eta denbora librean zer nolakoa den aztertzeko, APNABI izeneko elkartearen oinarritu naiz. Apnabi orain dela 40 urte baino gehiagotik AEN duten pertsonen eta beraien gurasoen bizi kalitatea hobetzeko helburuarekin lanean ari da. Erreferentziazko elkarte bilakatuz, izan ere, jaiotzetik lan munduan murgildu arteko baliabideak eskaintzen dituzte. Beraz, esan daiteke, bizi ziklo osoarako laguntza edo oinarria eskaintzen dutela.

Elkarte honen helburu nagusia, AEN duten pertsonen eta beraien familiei beharrezkoak diren laguntzak eta aukerak eskaintzea da, kalitatezko bizi proiektu bat garatzeko

asmoz. Honetarako, pertsona bakoitzaren ezaugarri indibidualak izango dira beti garrantzitsuenak eta horiek kontuan izanda, esku hartze egoki eta apropos bat egiteko aukera eskaintzen da.

Helburu horiek lortzeko asmoz, Apnabik hainbat baliabide eta zerbitzu eskaintzen ditu, bizitza ziklo osoan sakabanatuak eta pertsona bakoitzaren beharrei egokituak. Nire interesekoa, aisialdia eta denbora librearen esparrua da beraz, lan hau burutzerako orduan, esparru honetan oinarritu naiz.

Apnabik, aisialdia eta denbora librearen barruan, hainbat ekintza eskaintzen ditu, mota ezberdinetakoak (gehiago jakiteko, ikus 5. eranskina). Pertsona bakoitzaren beharrak, interesak eta nahiak kontuan izanda, ekintza batean edo bestean parte hartzeko aukera izango du.

3.2.1 Apnabik eskaintzen dituen aisialdia eta denbora libreko klubak.

Esan bezala, Apnabik aisialdia eta denbora librean oinarritutako hainbat ekintza eskaintzen ditu, horien artean, aisialdi eta denbora libreko klubak. Hainbat urte daramatzat klub hauetan AEN duten pertsonekin lan egiten eta hori dela eta, nik egin nahi dudan azterketaren inguruko informazioa jasotzeko, esparru egokia iruditu zait.

Aisialdia eta denbora libreko klub-ak hamabost egunean behin burutzen diren ekintzak dira, asteburuetan. Orokorrean, talde asko daudenez eta baliabide zabalago bat emateko nahiarekin, ekintza hauek bai larunbat, bai igandeetan egiten dira. Talde batzuk ekintza larunbatetan egiten dute eta beste batzuk igandeetan.

Ordutegiari dagokionez, orokorrean ekintza hauek arratsaldeetan burutzen dira; bostetatik zortzietara. Egunak, taldeak eta ordutegiak orokorrean ez dira aldatzen, nahiz eta batzuetan, ordutegia aldatzeko beharra izan.

Partaideei dagokienez, orokorrean taldeak bost eta zazpi bitarteko partaidekoak izaten dira eta bi monitore izaten dituzte. Orokorrean talde itxiak izaten dira, hau da, beti partaide berberak osatzen dute taldea. Izan liteke, norbaitek talde hori uztea edo partaide berriak etortzea, baina hau oso gutxitan gertatzen da, normalean kurtso hasieran edo amaieran.

Taldeei dagokienez, esan beharra dago hainbat talde daudela. Ekintza hauetan, ezaugarri eta adin anitzetako pertsonak parte hartzen dute beraz, oso garrantzitsua da pertsona hauek talde egokietan kokatzea, aisialdiaz modu aberasgarri batean gozatzeko eta bakoitzaren egoerari eta beharrei ahalik eta gehien hurbiltzeko. Hau honela izanda, taldeak sortzerako orduan, adina kontuan izaten da, izan ere, beraien adin antzekoetako pertsonekin harremanak sortzeari garrantzia ematen zaio. Horrez gain, bakoitzaren ezaugarriak, gustuak eta interesak kontuan hartzen dira eta guzti honekin, aisialdiko talde hauek sortzen dira.

Apnabik eskaintzen dituen ekintza hauen kokapena, Bilbon izaten da, Deustun hain zuzen ere. Esan bezala, talde bakoitza proposatutako ekintzen arabera moldatzen da eta orokorrean Bilbon edo inguruetan egiten ditugu ekintzak, denbora dela eta ez baitugu urrunago joateko aukerarik.

3.2.2 Taldearen aurkezpena

Behin aisialdia eta denbora libreko klub-en inguruko informazio orokor bat izanda, ekintza honetan parte hartzen duen talde zehatz batean oinarrituko naiz. Izan ere, talde honetan oinarritu naiz gai honen inguruko azterketa egiteko.

Esan beharra dago, aisialdi eta denbora libreko talde gehienak mutilez osatutakoak direla eta nik aukeratu dudana taldea, neskez osatutako talde bakarra dela. Taldea lau neskek osatzen dute. Nerabezaro garaian aurkitzen diren lau neska dira, hamahiru eta hemeretzi urte bitartekoak. Orokorrean, talde hauek osatzen dituzten pertsonak adingabeak izaten dira, nahiz eta hemezortzi urte baino gehiagoko pertsonak ere egon.

Orain dela pare bat urte sortutako talde baten inguruan ari naiz. Hainbat partaide izan ditu eta denboraren poderioz batzuk joan eta beste batzuk etorri egin dira. Beraz, momentu honetan taldean, hasieratik jarraitzen duten bi partaide soilik daude, beste biak korporazio berriak izan dira. Taldeak jasan dituen aldaketa hauen ondorioz, hainbat liskar sortu izan dira taldeko partaide ezberdinen artean. Honek, askotan taldearen giroa kaskartu izan du eta ekintzen helburua lortzea zailagoa izan da.

Gustuen eta interesen aldetik, denek interes nahiko berdintsuak dituzte; dendak, arropa, jaiak, erosketak, makillajea, sukaldaritza, etab. Ikus daitekeenez, taldeko partaideak bai

adin aldetik bai interes eta gustuen aldetik nahiko antzekoak dira nahiz eta beraien artean, beste esparru batzuetan, mota ezberdinetako ezaugarriak izan.

3.3 Datu bilketarako tresnak

Azterketa hau burutzeko, lehenik eta behin, garrantzitsua iruditzen zait ahalik eta informazio eta datu gehien bilatzea eta jasotzea. Horretarako, hiru tresna nagusi erabili ditut: behaketa parte hartzailea, talde dinamikak eta elkarrizketa. Tresna hauek, ikuspuntu ezberdinetako iritziak edo bizipenak biltzeko aukera eman didate.

Datu bilketa hau egiterako orduan, analisi txiki honetan parte hartu duten pertsona guztien konfidentzialtasuna bermatzea ezinbestekoa izan da. Horretarako, jasotako informazio guztia modu anonimoan jaso izan dut, izenik gabe edo datuen babes legea kontuan izanik.

Aurreko hau kontuan izanda, lan hau burutzerako orduan, eman ditudan lehenengo pausuak beharrezkoak zaizkidan baimenak eskatzea izan da. Horretarako, Apnabiko aisialdia eta denbora libreko arduradunarekin harremanetan jarri naiz eta nire lanaren inguruko azalpenak eman dizkiot. Modu honetan, taldeko partaideekin behaketa eta talde dinamikak egiteko aukera izan dut, baita elkarrizketak egiteko ere. Honekin batera, beharrezkoak izan diren jakinarazpen baimenak jaso ditut (gehiago jakiteko, ikus 6. eranskina).

Beraz, esan bezala, analisi txiki hau burutzeko beharrezkoa den informazioa eta datuak biltzeko, hurrengo hiru tresna hauek erabili ditut:

a) Behaketa parte hartzailea

Behaketaren bitartez, pertsona baten edo pertsona talde baten inguruko informazioa jasotzeko aukera dugu, pertsona baten jarrera, interesak, gustuak, beldurrak, etab.-en inguruko informazioa bilduz. Behaketa ingurune natural batean (egunerokotasuneko ekintzetan adibidez) edo artifizialean (prestatutako egoera baten aurrean) eman daiteke eta begiralea parte hartzailea edo ez parte hartzailea izan daiteke.

Azterketa hau aurrera eramateko, behaketa parte hartzailea erabili dut, izan ere, ni ere ekintza horren partaide izan naiz eta egindako ekintza horietan parte hartu izan dut. Taldeak burutu dituen ekintza horien inguruko informazioa eta partaideen parte hartzearen ebaluazioa jasotzen dituen taula bat sortu dut, bertan ekintza bakoitzaren inguruko informazioaren bilketa orokor bat egiteko asmoz. Oharrak ez ditut ekintza burutzen ari den unean bertan hartu, ekintza bukatu ostean tarte bat hartu dut eta taula bat erabiliz, ekintzaren inguruko hausnarketa egin dut (gehiago jakiteko, ikus 7. eranskina).

Hau kontuan izanda eta ni, talde honetako erreferentziazko profesionala izanik, modu parte hartzaile batean, talde honen funtzionamendua nolakoa den ezagutzeko aukera izan dut. Izan ere, behaketa parte hartzailearen bitartez, AEN duten neska gazte hauen jarrera, interesak, komunikatzeko moduak, interakzioak, etab. jasotzeko eta ezagutzeko aukera izan dut, testuinguru natural batean murgilduz. Hau da, egoera edo inguru ohiko edo natural batean gauden bitartean, behaketaren bidez, mota askotako informazioa jaso ahal izan dut.

b) **Talde dinamikak**

Bestalde, talde dinamikaren inguruan hitz egin beharra dago, izan ere, informazioa biltzeko erabili dudan beste tresna bat izan da. Talde dinamikaren helburua oso anitza izan daiteke, gainera, talde dinamikak helburuaren arabera sortzen dira, hau da, konfiantza sortzea bada gure helburua, mota bateko dinamikak egingo ditugu eta enpatia sustatzea bada helburua, beste batzuk. Talde dinamikaren bidez, pertsona edo talde baten ezagutzak, gustuak, jarrerak, gaitasunak, ikuspuntuak, etab. ezagutzeko aukera izango dugu.

Tresna honen bitartez, partaideek aisialdia eta denbora librearen inguruan duten iritzia edo ikuspuntua ezagutzeko aukera izan dut eta Apnabiko klubean begirada jarritz, esparru honi bideratutako sentimendu eta pentsamenduak zeintzuk diren ikusi ditut. Beraien aisialdia eta denbora libre nola kudeatzen duten ezagutu dut eta arlo honi, zer nolako garrantzia ematen dioten. Horretarako, talde dinamika hau modu atsegingarri batean proposatu dut (gehiago jakiteko, ikus 8. eranskina).

Esan beharra dago, Apnabiko arduradunarekin harremanetan jarri ostean, burututako dinamika honetatik ateratako ondorioak, Aisialdia eta Denbora Libreko Klub honetako ebaluazio orokorra egiteko erabiliko direla. Beraz, ateratako informazio guztia elkartera bideratu beharko dut.

c) **Elkarrizketa**

Bukatzeke, elkarrizketari dagokionez, esan beharra dago, pertsona batek gai zehatz baten inguruan duen ikuspuntua edo iritzia jasotzeko tresna egokia dela. Horregatik, analisi hau osatzeko, pertsona ezberdinei elkarrizketa batzuk burutu dizkiet, elkarrizketa egituratuak denak. Elkarrizketatu bakoitzak, AEN duten pertsonen aurrean, jarrera edo behar ezberdinak ditu, beraz, emaitza aberasgarriak eta anitzak atera ahal izan ditut.

Alde batetik, Apnabiko aisialdia eta denbora libreko arduradunari elkarrizketa bat egitea ezinbestekoa izan dela uste dut. Hainbat urte daramatza esparru honetan AEN duten pertsonekin lanean eta beraren ikuspuntua eta dituen jakintzak ezagutzea aberasgarria dela uste dut (gehiago jakiteko, ikus 9. eranskina).

Bestalde, klub hauetako beste ikuspuntu bat jasotzeko helburuarekin, bertan lan egiten duten bi begiraleri elkarrizketa egiteko aukera izan dut. Modu honetan, klub hauetako funtzionamendua eta profesionalen ikuspuntua zein den ezagutu ahal izan dut. Alde batetik, nire talde berdinean lanean ari den kideari elkarrizketa egin diot, gure taldearen inguruko erreferentziak izanez (gehiago jakiteko, ikus 10. eranskina). Bestalde, nahiz eta nire taldeko kide ez izan, klubeko beste talde batzuetako begiralea den beste kide bati elkarrizketa egin diot, maila orokorrago batean, AEN duten pertsonen aisialdiaz eta denbora libreaz hitz egiteko asmoz, honela, bere taldeetako esperientziak partekatzeko aukera ere izan dugu (gehiago jakiteko, ikus 11.eranskina).

Elkarrizketa hauek egiterako orduan, jakinarazpen baimenak eskatu ditut eta pertsona bakoitzaren anonimotasuna errespetatzen eta bermatzen saiatu naiz. Horrez gain, datu bilketa egiteko elkarrizketa hauen ahotsak grabatu izan ditut eta ondoren, lan honetan txertatzeko transkripzioa egin dut. Elkarrizketak, gazteleraz egin ditut, izan ere, nahiz eta elkarrizketatuek euskaraz hitz egiten jakin, askoz hobeto moldatzen dira erdaraz hitz egiten. Honegatik, elkarrizketa hauen transkripzioarekin bat, gaztelanatik euskarara itzulpenak egin ditut.

4. EMAITZAK ETA DISKUSIOA

4.1 Esparruko arduradunaren ikuspegia eta taldeko kideen ikuspegia.

AEN duten pertsonen aisialdia eta denbora librearen inguruan gehiago jakiteko, Apnabiko aisialdia eta denbora libreko arduradunarekin bildu naiz elkarrizketa bat egiteko. Berak, aisialdia eta denbora librearen giza eskubideari garrantzi handia ematen dio, eta honen inguruan, hurrengo hau adierazi zidan: *“guk, Apnabin eta Aisialdia eta Denbora Libreko zerbitzuan, oso argi dugu aisialdia eta denbora librea giza eskubide bat dela eta hau mundu guztiak ez dakiela. ONU-k desgaitasuna duten pertsonen eskubideen inguruan sortu zuen konbentzioan biltzen duen eskubidea da. Hainbat artikuluetan ere biltzen da eta ez soilik ONU-k sortutako artikuluetan, baizik eta gure konstituzioak ere eskubide honi erreferentzia egiten dio”*. Adierazpen honekin, esparruko arduraduna, Cuenca-rekin (2011) bat datorrela esan dezakegu, aurretik aipatu dugun bezala, autore honek ere, aisialdia gizakiaren intentzioaz sortutako esperientzia bat dela zioen, giza eskubide bat eta garapen arlo bezala ulertzen zuen.

Aisialdia eta denbora librea, giza eskubide bezala onartuz, argi geratzen da gizarteko persona guztien eskura egon behar den zerbait dela eta edozeinek esparru horretaz gozatzeko aukera izan behar duela. Beraz, aisialdia eskubide bezala kontuan hartuz, aisialdi inklusiboaz hitz egin behar da, garrantzi handia hartu duen kontzeptua baita.

Cuenca-k (2011) inklusioaren inguruan hurrengo hau adierazten du; inklusioak hurrengo balioak aintzat hartzen ditu: onarpena, pertenezia, harreman pertsonala, komunitate guztien parte hartzea, etab. Aisialdia, denon eskura egon beharko litzateke, hori izango da aisialdi inklusiboaren oinarrietako bat. Ideia honekin lotuta, Apnabiko arduradunak, *“Niretzako, eskuragarri hitzak gauza asko esaten edo adierazten ditu. Hasteko, eskaintza eskuragarria izan behar da, pertsona guztientzat. Eskuragarria diot, ez ezberdina. Pertsonak, interesatzen zaion hori aurkitu behar du, eta testuinguruak baloratu beharko du zer nolako laguntzak behar dituen pertsona batek ekintza hori burutzeko eta behar diren laguntza horiek erraztu beharko ditu, AEN duten pertsonen ezaugarriak eta beharrak zeintzuk diren kontuan izanez”* eskuragarritasun kontzeptuan ere asko sakontzen du, inklusioaren oinarri nagusi bezala adieraziz. Esan bezala,

pertsona guztientzat sortutako aisialdia izan behar da, ez ezberdina, baizik eta denontzako eskuragarria. Berak dioen bezala, gizakiak behar edo nahi duen hori aurkitu beharko du komunitatean bere aisialdiaz modu aberasgarri batean gozatzeko eta bere eskubidea betetzen dela bermatzeko.

Arduradunaren ustetan, aisialdi inklusiboaren arloan, egiteko asko dagoela dio. Berak, garrantzi handia ematen dio bai pertsonari bai pertsonaren testuinguruari. Aisialdi inklusiboaz hitz egiten dugunean, testuingurua eta pertsonaren artean dagoen harremanaz hitz egin behar dugu. Azkenean, inklusioa lortzeko lotuta doazen bi kontzeptu direla dio: *“Inklusioaz hitz egiten dugunean, logikoki ezin dezakegu testuinguruarekin dugun harremanaren inguruan hitz egiteari utzi, binomio bat da, tandem bat bezala, beti batera egon behar dira, bata bestea osatu. Testuinguruak, gizarteak, denontzat zuzenduta dauden ekintzak sortu behar ditu, denok ekintza horietan parte hartzeko aukera eskainiz”*. Honekin lotuta, Madariaga-k, Lazcano-k eta Doistua-k (2011) giza eskubideei erreferentzia egiten die eta denontzako gizarte baten aldeko defentsa sustatzen dute. Beraz, denon beharrak asetzeko gai den komunitate baten sorkuntza beharrezkoa dela adierazten dute, inklusioan oinarritutako komunitate bat, hain zuzen ere.

Giza talde batzuk aisialdi eta denbora libre horretaz gozatzeko zailtasunak aurkitzen dituztela kontuan izatea ezinbesteko zerbait da. Kasu honetan, AEN duten pertsonak aisialdi eta denbora libre horretaz gozatzeko izan ahal dituzten zailtasunen inguruan hitz egin behar da. Apnabiko arduradunak mota askotako oztopoez hitz egiten du; oztopo arkitektonikoak, mentalak, eskaintza ez oso inklusiboak, familiak, aisialdia ulertzeko moduak, etab. Guzti horietatik, begirada oztopo mentaletan eta eskaintza inklusibo txikian sakontzen du. Aipatu duen bezala, komunitatearen lana oso garrantzitsua da eta horretarako, komunitatearekin lan egin behar dugula dio, kontzientziazio bat eskainiz eta ate berriak irekiz. Beraren hitzetan, *“hasieran esan dudana bezala, gehienbat oztopo mentalak dira parte hartzea oztopatzen dituztenak. Hor daukagu oso garrantzitsua den lan bat. Kontzientziazio lana, mentalitateak zabaltzeko, ateak irekitzeko ... Testuinguruarekin zenbat eta gehiago lan egin, orduan eta eskaintza inklusibo gehiago sortuko dira”*. Komunitateak denontzako bideratuta dauden ekintzak sortu behar ditu, testuinguru edo komunitate inklusibo bat izateko, eta horretarako, pertsona guztien beharretara bideratua egon behar da, beraz, eskuragarria izan behar da komunitateak eskaintzen duen aisialdia, denontzako sortua.

Eskuragarritasun hori lortzeko, ezibestekoa izango da komunitatean dauden ekintza batzuk moldatzea edo pertsonen behar ezberdinetara egokitzea. Arduradunak dioten bezala, persona bakoitzaren beharrak zeintzuk diren ezagutu behar ditugu eta ekintzak, behar horiek kontuan izanda sortu *“Beraz, pertsonetan pentsatu behar dugu, beraien beharretan, gustuetan, behar dituzten laguntzetan ... eta logikoki, pertsonak dituen beharretan lan egin, baloratu, ekintzak eta laguntzak hasieratik planifikatu eta ez soilik hau, baizik eta praktikan zer nolako laguntzak behar diren kontuan izan behar dira; “hau heltzen bazait, zer behar dut ...”* Askotan, aisialdi inklusiboa sortzeko, garrantzitsua da testuinguruko eskaintzak, ekintzak, etab. moldatzea *“Zer nolako laguntza beharrezkoak diren baloratu behar dugu, beti ikuspuntu positibo batetik. Indartsuagoak edo indar gutxiagokoak diren laguntzak. Esfortzu fisikoa, soziala edo berbala behar den baloratu beharko da. Estrategia ezberdinak martxan jarri beharko dira ... Niretzako garrantzitsuena eskuragarria izan behar dela da. Espezifikoa? Ba ez dakit, baina pertsona guztiak kontuan izan behar ditu eta pertsona bakoitza ezberdina denez, nola moldatu edo egokitu daitekeen ikusi behar da. Nola moldatu beharko genuke aisialdi eta denbora libre hori”*. Laburbilduz, berak esan bezala ezinbestekoa da pertsonak ezagutzea, bakoitzak dituen gustuak, interesak, zaletasunak, beharrak, etab. zeintzuk diren jakiteko eta horiei erantzun egoki bat emateko. Aisialdiko ekintza horiek burutzeko beharrezkoak diren laguntzak eskaini behar dira eta kasu honetan, AEN duten pertsonak ekintza moldatu ostean, barneratuak izatea eta aisialdiko eskubide horretaz gozatzeko aukera izatea *“Beraz, ezagutzea ezinbestekoa da gero moldatu eta parte hartu ahal izateko. Hori da klabea”*.

Aurretik aipatu dugun honegatik, arduradunak pertsonak ezagutzeari garrantzi handia ematen dio *“Aisialdia eta denbora libre inklusiboagoak izan beharko litzateke. Begirada? Pertsonak ezagutzean, hau da, nik uste dut orokorrean gabezia bat dagoela, nahiz eta gero eta gehiago esparru horretan lan egin, oraindik bide bat dago egiteko”*.

Modu honetan, aisialdia inklusiboa eta eskuragarria izango da denontzat. Honekin lotuta, Madariaga-k (2004) esan zuen moduan aisialdi inklusibo baten alde borroka egiteko, inklusio printzipioa kontuan izan behar da, pertsona bakoitzaren beharrak asetzeko testuingurua egokitu eta pertsona bakoitzarentzako eskaintza moldatuko da, arrazoi ezberdinak direla.

Azterketa honetan, beste ikuspegi bat izateko aukera izan dut. Klubeko partaide direnen ikuspegia hain zuzen ere. Aipatutako talde dinamikarekin, beraiek beraien aisialdia eta denbora librea nola bizi duten jakiteko aukera izan dut eta horrez gain, Apnabiko klubaren inguruko hausnarketa txiki bat egin dugu.

Orokorrean, esan dezakegu pozik etortzen direla Apnabiko klubera eta gauza onak ere ateratzen dituztela bertatik, bigarren partaideak dioen bezala, *“eskolako arazoez lasaitzeko eta lagunekin jolasteko”* balio izaten dio aisialdiko klubak, hirugarren partaideari, *“txarto egon naizenean barrukoa ateratzeko eta lagundu egin didate”*, lehenengo partaideak, ordea, *“pertsona ezberdinak daudela ulertzeko”* balio izan dio klubera etortzeak. Ikus daiteke, aisialdiko kluba dela baina beraien artean gauzak kontatzeko eta bata besteari aholkuak emateko tokia ere aurkitu dutela klubean.

Lagun berriak egiteko aukera izan dute, nahiz eta hausnarketa egiterako orduan, bigarren partaideak bere lagunak kanpoan daudela esan du eta hemen jende berria ezagutu duela. Ideia honekin lotuta, neska hauei klubaren bitartez beste pertsona batzuekin aisialdiko ekintzak partekatzeko aukera eskaintzen zaie eta Alcolea-k (2010) adierazten duen bezala, aisialdiaren bidez, beste pertsona batzuekin harremanak izatea sustatu daiteke, ekintza eta espazio ezberdinak bere berdinekin konpartitzeko aukera eskainiz. Esparru positibo batean, beste pertsonetikiko komunikazioa eta interakzioa lantzeko leku egokia bilakatzen da aisialdia.

4.2 Ekintza zuzenetik kanpo burutzen den lana: ekintza baino aurretiko batzarra

Lehenengo begiraleak adierazten duen bezala, asteburua heldu baino lehen, bi profesionalak esparruko koordinatzailearekin batzen gara. Batzar horretan, gertakari aipagarrien inguruan hitz egiten dugu, aurreko asteburuan burututako ekintzaz eta hurrengoan egin genezakeenaren inguruan. Berarekin, akta irakurtzen dugu, non datu aipagarrienak agertzen diren: asteburuan zerbait kontuan izan behar badugu, zenbateko dirua daukagun, partaide baten falta badago, etab. Gune edo esparru egokia bilakatzen da, gure barnean izan ahal ditugun zalantzen inguruan hitz egiteko eta lan egiteko moduaren jarraibideak zehazteko.

Behin koordinatzailearekin hitz eginda, lehenik eta behin, esan bezala akta irakurriko dugu. Bertan agertzen den informazio hori kontuan izanda, programaziora joango gara. Atal honetan, astebururako ekintza planifikatuko dugu. Horretarako, esan bezala oso garrantzitsua da erabiltzaileen gustuen eta nahien inguruko informazioa izatea, modu honetan, ekintza gustukoa izango dutela bermatzen dugu eta ondo pasatuko dutela ere bai. Horrez gain, garrantzitsua da ere eguraldia kontuan izatea eta arlo ekonomikoa presente izatea. Taldearen nahien eta gustuen oinarritik hasita, inguruan dauden ekintza ezberdinen informazio bilketa egingo dugu, agenda ezberdinak begiratu, herri bakoitzak eskaintzen dituen ekintza ezberdinen inguruan informazioa bilatu, etab.

Askotan, esan beharra dago arlo ekonomikoak eta meteorologikoak asko baldintzatzen dutela ekintza eta taldea ere bai. Lehenengo begiraleak dioen bezala, *“eguraldiak ere asko baldintzatzen du ekintza, ia begiratzen dugun lehenetariko gauza izaten da, eguraldi ona egiten badu, ekintzak egiteko aukerak nabarmen hazten dira, kanpoan ekintzak egiteko aukera duzulako eta horrek ez du zertan alde ekonomikoko beharrik izaten. Euria egiten badu, beste ekintza batzuk egin behar ditugu; zinemara joan, boleara, museoak, etab.”*

Gehienbat arlo ekonomikoarekin jolastea izaten da egokiena. Arazoa, askotan kostu handia duen ekintza bat egiterakoan, presupuestoaren gehiena gastatu egiten dela, adibidez, ihes egiteko gela horietako bat egitean, diru asko galtzen dugu hurrengo ekintzarako. Aurreztea beraz, eta dirua kontrolatzea, gure lanean garrantzitsua bilakatu da, ekintza egokiak eta gustukoak egin ahal izateko. Gai ekonomiko honen inguruan, bigarren begiraleak hurrengo hau adierazten du, *“hilean zehar kudeatu behar dugun dirua daukagu eta horrekin, ekintza politikak egiten saiatzen gara, eta kasu askotan dirua beharrezkoa izaten da. Baina beste egunean adibidez, eskubaloira jolastera joan ginen, gero izozkia jatera eta ekintza hauek adibidez, beraien egoerara hobeto egokitzen dira, alde ekonomikotik ikusita”.*

Programazioarekin batera, ebaluazioa ere egiten dugu. Hau da, aurreko asteburuan egindako ekintza azalduko dugu eta horren inguruko ebaluazioa egingo dugu. Zer nolako parte hartzea izan duen, gustukoa izan bada, partaideek ekintzaren inguruan zer esaten duten, etab. Honela, hurrengo baterako ekintza errepikatu ahal den edo ez ikusiko dugu. Programazioa eta ebaluazioa egiteko plataforma, berdina erabiltzen dugu (gehiago jakiteko, ikus 12. eranskina).

Askotan, erreserbak egin behar ditugu, leku ezberdinetara deitu behar dugu, ordutegiak kontuan izan behar ditugu, etab. Beraz, ekintza ondo programatuta eta antolatuta egonda, diruaren kudeaketa egin beharko dugu. Esan bezala, kantitate zehatz bat dugu hilabete guztirako beraz, oso garrantzitsua da horren kontrola eta jarraipena eramatea.

Horretarako, hau da, jarraipen egoki bat egiteko, beharrezkoa da ekintza bakoitzean egiten ditugun gastuen tiketak hartzea, gero justifikatu ahal izateko eta gastuen kontrola eramateko. Kaxa izenez ezagutzen dugun plataforma/ taula bat erabiltzen dugu gastuen jarraipena egiteko (gehiago jakiteko, ikus 13. eranskina).

Guzti hau burutu ostean, batzarrarekin bukatzeko, ahal izanez gero koordinatzailearekin batuko ginateke berriz ere, egingo dugunaren inguruko informazioa emateko.

4.3 Apnabiko klubean egiten diren ekintzak

Ekintzak planifikatzerako orduan, aurretik aipatu dudana bezala, oso garrantzitsua da taldeko partaide edo kide guztien gustuak, interesak, zaletasunak, etab. kontuan edukitzea. Horrela, planifikatuko diren ekintza guztiak oinarri horretatik sortuko ditugu eta denek aisialdia eta denbora libreko ekintzez gozatzea bermatuko dugu. Bai bi begiraleek eta esparruko arduradunak, honen inguruan sakon hitz egin dute, klubeko oinarri garrantzitsu eta ezinbesteko bat baita. Bigarren begiraleak dioten bezala, *“taldeak, adinaren eta gustuen arabera moldatuak edo sortuak daude, horregatik daude horrela sortuak. Guk, beraiekin hitz eginda eta bulegoetatik beraien gustuen inguruko informazioa jasota, gustatu ahal zaizkien edo aberasgarriak izan ahal diren ekintzak bilatzen ditugu”* oso garrantzitsua da beraien interesak, zaletasunak, gustuak ... zeintzuk diren jakitea eta horien bitartez, ekintzak planifikatzea. Aisialdiaren eskubide hau bermatzeko, garrantzitsua da AEN duten pertsonen aukerak eskaintzea, horretarako aipatutako arloak kontuan izan behar ditugu, Apnabiko esparru honetako arduradunak dioten bezala, *“Apnabitik, gehienbat eskubide hau bermatzen saiatzen gara eta gure zerbitzu guztiek sentzua dute, berengan sinesten baitugu. Pertsonentzako aukerak sortzen saiatzen gara gehienbat, beharren, interesen, gustuen, preferentzien, afizioen... arabera diseinua egiten dugu. Eskubide hau defendatzeko aukera ematen dieten ekintzak dira. Asebetetze bat ematen duten ekintzak, entretenimendu bat eskaintzen*

dutenak, aberasten dituzten ekintzak. Aisialdia eta denbora libre, hor dagoen denbora hori betetzea baino zerbait gehiago baita”.

Lan hau hobetzeko, garrantzitsua da kurtso hasieran, taldeko kide guztiekin biltzea eta “brainstorming” moduko bat egitea. Honela, kide bakoitzak bere gustuen eta egin nahi dituen ekintzen inguruko informazioa adieraziko du eta denon nahiak zeintzuk diren kontuan izanda, ekintza ezberdinak proposatzeko aukera izango dute. Bigarren begiraleak adierazten duen bezala *“kurtso hasieran, ekintzak hasten direnean, beraiekin zerbait hartzeko geratzen gara eta bertan, ekintzen inguruan hitz egiten dugu; ze ekintza egin ahal ditugun, zer gustatzen zaien, etab. Beraiek esaten digute”*. Guk, proposamen horiek bilduko ditugu eta ekintza zerrenda bat burutuko dugu, etorkizun batean burutu ahal diren ekintzak zeintzuk diren adieraziz eta denon gustuak kontuan izango direla bermatuz. Hau egin ostean, beraiek adostasun batera helduko dira eta hurrengo egunean burutu nahi duten ekintza zein den pentsatuko dute.

Orokorrean, talde gehienek gustu zehatz batzuk izaten dituzte, hau da, nahiz eta taldeen artean ezberdintasun handiak egon (adina, sexua, interesak, zaletasunak ...) ekintzek askotan bat egiten dute. Adibidez, zinemara joatea orokorrean asko gustatzen zaie, ihes geletara joatea, boloekin jolastea, dibertimenduzko jokoetara jolastea, etab. Bigarren begiraleak adierazten duen bezala, *“orokorrean oso ohikoa den zerbait, ihes gelak, bolera, zinema, piraguismoa, igerilekura joatea, etab. izaten dira”*. Nahiz eta ekintza asko talde ezberdinetan errepikatu, esan beharra dago, talde bakoitzak bere ekintzak proposatzen eta egiten dituela eta ezberdintasunak ere ematen direla.

Analisi hau egiteko erabili dudana taldean oinarrituz eta martxotik hona nik egin dudana behaketa parte hartzailean begirada jarritz, ikus dezakegu zeintzuk diren beraiek proposatzen dituzten ekintzak eta urtean zehar burutzen ditugunak (gehiago jakiteko ikus, 14. eranskina)

Talde honekin bi urte daramatzat lanean eta egia esan, ekintzak urtero- urtero oso berdina izaten dira. Ikus daitekeen bezala, askotan asko gustatu zaien ekintzaren bat errepikatzen dugu, eskulanean azokarena adibidez. Gehien gustatzen zaizkien ekintzak arropak eta dendak ikusten joatea, boloetan jolastera joatea, zinemara, etab. dira. Orokorrean, asteburu horretan ekintza berezirik edo zehatzik ez badago honelako ekintzak burutzen ditugu, eguraldia eta dirua kontuan izanda, baita beraien nahiak ere.

4.4 Ekintza zuzenetik kanpo burutzen den lana: ekintza osteko batzarra

Ekintza burututa, hurrengo astean berriz ere profesional biak batzen gara ekintzaren ebaluazioa egiteko asmoz. Batzar honetan, prozesua berdina izango litzateke, baina orain bai ekintzaren eta partaide bakoitzaren ebaluazioa egin beharko genuke. Ekintzaren ebaluazioa, nahiko orokorra izaten da. Hau da, taldea bere osotasunean nola ikusi dugun adierazten dugu espezifikotasunetan sartu gabe. Esan bezala, ekintzaren aurrean zer nolako erantzuna izan duten adieraziko dugu, beraien parte hartzea nolako izan den, erreakzioak, komunitatean parte hartu duten edo ez, etab. Lehenengo begiraleak dioen bezala, *“lehenik eta behin, begirada orokor bat. Ondo joan da? Bai. Orokorrean, beti ondo joaten da, zerbait gertatu ez bada. Gozatu duten edo ez ere adieraziko dugu. Gero, ebaluazio indibiduala egingo dugu, pertsona bakoitzekoa. Bertan, pertsona hori konkretuki nola ikusi dugun adieraziko dugu, zelan egon den ekintzan, ondo pasatu duen, zelan jarri den harremanetan, norekin, etab.”*. Ebaluazio orokorra egiteko, programazioan erabili dugun taula bera erabiliko dugu.

Hau eginda, esan bezala, partaide bakoitzaren jarraipen propio eta indibiduala egin beharko dugu. Ebaluazio edo jarraipen hauek sakonagoak dira, izan ere, bakoitzaren inguruko informazioa ematen dugu modu zehatz batean. Bai ekintzarekin lotutako ebaluazioa edo informazio bilketa eta bera nola ikusi dugun argituko dugu, beraien kideekin erlazionatu den edo ez, berak interakziorik hasi duen edo ez, taldetik aldentzeko joera duen edo ez, ekintzak gozatu duen, etab adieraziko dugu. Modu honetan, erabiltzaile bakoitzaren urte osoko jarraipen bat jaso ahal izango dugu, gainera, beraien jarreraren eta ezaugarrien inguruko informazioa ere jasoko dugu. Jarraipen hau aurrera eramateko, elkarrekin datu base zehatz bat dauka, bertan partaide bakoitzaren fitxa dago eta ekintzaren data ezarriz, ekintza horretan parte hartzen duten kideen zerrenda agertzen da. Zerrenda horretan, bakoitzaren jarraipen zehaztua egiten dugu.

Honez gain, lehenengo begiraleak dioen bezala, *“Hau honela izanda, orain pertsona bakoitzaren inguruko informeak egiten hasi gara. Pertsona hori ezagutzen duten monitoreek jasotzen duten informazioarekin”*. Beraz, aurten informe indibidualak egiten hasi gara. Batzar hauen amaieran, tarte bat izaten dugu informe hauek betetzen joateko. Bertan, mota askotako informazioa biltzen saiatzen gara, modu honetan, partaide

horrekin lan egingo duen edozein profesionalak bere inguruko informazio zabala eta esparru anitzekoa jasotzeko eta eskuratzeko aukera izango du. Aspektu hauek kontuan izaten dira: nolakoa den, zer ezaugarri dituen, zer nolako beldurrak dituen, bere desioak eta nahiak zeintzuk diren, nolako autonomia maila duen, kanpo harremanak dituen edo ez, tratamendu medikuak, alergiak dituen edo ez, etab. Hainbat esparru hartzen dituen informea da.

5. ONDORIOAK

AEN duten pertsonen aisialdia eta denbora librearen inguruko analisi txiki hau egin ostean, eta egoera ezberdinetan (arduraduna, begiraleak eta klubeko partaideak) aurkitzen diren pertsonen ikuspuntuak edo jakintzak ezagututa, hainbat ondorio ateratzeko aukera izan dut.

Askotan, pertsona baten aisialdia eta denbora libreari ez zaio behar duen garrantzia ematen. Aisialdia eta denbora libre, denontzako ezinbestekoa den esparru bat da eta gizakion garapen pertsonalean eragin zuzena dauka. Talde baten pertenezia sentimendua izateak, lagunak egitea, jende berria ezagutzea, gustuko ditugun ekintzak egitea, etab. aberasgarriak dira edozein pertsonarentzako eta autoestimua handitzeko. Honek, gizakiari bizi kalitate bat, garapen pertsonala eta ongizatea bermatzen dizkio. Guzti hau dela eta, aisialdiaz eta denbora libreaz gozatzea, gizaki guztion eskubide bilakatu da.

Hau kontuan izanda, ezinbestekoa da gizarteko gizaki guztien eskubide hau bermatuta egotea eta beraz, aisialdia denon eskura egon beharko litzatekeen zerbait izatea. Egia da, desgaitasunen bat duten pertsonak edo kasu honetan AEN duten pertsonak, oztopo edo zailtasun asko izaten dituztela beraien aisialdia eta denbora libreaz gozatzeko eta askotan, eskubide hori urratua izaten da.

Ikusi dugun bezala, oztopo horiek, mota askotakoak izan daitezke; mentalak, arkitektonikoak, familiarak, beldurrak, etab. Oztopo hauei konponbide bat emateko eta eskubide hau bermatzeko helburuaz, aisialdi inklusiboan jarri behar dugu begirada. Aisialdi inklusiboa, gaur egun indarrean dagoen kontzeptu bat da, ala eta guztiz ere, oraindik asko landu behar dena. Izan ere, nahiz eta gizarte inklusibo batean bizi, oraindik desgaitasuna duten pertsonen aisialdia eta denbora libre ez dira beti bermatzen eta

horrek, pertsonen garapenean, harremanetan, autoestimuan, ongizatean, etab. eragin zuzena izan dezake.

Aisialdi inklusiboaz hitz egiten dugunean, testuinguruaz hitz egin behar dugu, gizakiok gure testuinguruarekin dugun harreman horretaz. Testuinguruak, gizarteak edo komunitateak aisialdiko eskaintzak egiten ditu, askotan eskaintza horiek ez daude persona guztiei zuzenduak, izan ere, pertsona mota asko daude eta denak kontuan izatea zaila izan daiteke. Honek, oztupoak jartzen dizkie desgaitasuna duten pertsoneri eta kasu honetan, AEN duten pertsoneri.

Komunitateak eskaintzen dituen aisialdiko ekintzak, eskuragarriak izan behar dira eta gizarteko pertsona guztiei zuzenduak. Hori dela eta, aisialdia ez da denon eskura agertzen, persona guztiak kontuan izaten ez direlako. Beraz, garrantzitsua da testuinguruarekin lan egitea eta pertsona guztientzako eskaintzak sortzea, denok, aisialdiaz gozatzeko aukerak izateko. Honela, pertsonen aisialdirako atak irekitzen ditugu.

Aisialdi inklusiboan egiteko lan asko dagoenez, gaur egun aisialdia ez da pertsona guztientzat bermatzen eta hori dela eta, desgaitasuna duten pertsonen, kasu honetan, AEN dutenek, elkarte baten beharra izaten dute, beraien aisialdiko behar hori bermatzeko edo kudeatzeko.

Honekin lotuta, ezinbestekoa da pertsonan oinarritzea. Hau da, pertsona bakoitza ezberdina da eta bakoitzak, aisialdiaz gozatzeko modu ezberdinak ditugu. Beraz, bakoitzaren interesak, gustuak, nahiak, zaletasunak, motibazioak... zeintzuk diren jakitea oinarrizko zerbait da, hortik abiatuz, aberasgarriak izango diren ekintzak planifikatzeko aukera gehiago izango dugu. Garrantzitsua da, testuinguruak eskaintzen dituen ekintza horiek, pertsonen behar eta interes horietara moldatzea edo egokitzea. Beharrezkoak diren laguntzak planifikatzeko eta ekintzan adaptazioak egiteko. Modu honetan, aisialdi inklusiboa sustatzen dugu eta pertsona guztiek aisialdirako eskubidea izatea bermatzen dugu.

7. BIBLIOGRAFIA

- Alcolea, G. (2010). *la identidad de la persona con trastornos del espectro autista se conquista en el desarrollo de sus oportunidades de ocio*. Hemendik eskuratua: <http://sid.usal.es/idocs/F8/ART14282/233-3%20Alcolea.pdf> Kontsultatua: 2019/04/20.
- APNABI - Autismo Bizkaia. (2017). *Servicios*. Hemendik eskuratua: <https://www.apnabi.eus/>
- Cuenca, M. (2011). *El ocio como ámbito de Educación Social*. Hemendik eskuratua: <https://www.raco.cat/index.php/EducacioSocial/article/viewFile/238961/369174> Kontsultatua: 2019/03/22.
- Del Barrio, V. (2009). *Raíces y evolución del DSM*. Hemendik eskuratua: Kontsultatua: 2019/03/21
- Douglas, P. (2014). *Autism's "Refrigerator Mothers": Identity, Power, and Resistance*. Hemendik eskuratua: <https://munkschool.utoronto.ca/cphs/wp-content/uploads/2014/12/1605DouglasCPHS-final.pdf> Kontsultatua: 2019/03/21
- Gomez Gerdel, M. (2017). *Inclusión socioeducativa y calidad de vida de dos jóvenes con síndrome de Asperger en la asociación AMSA (asociación malagueña del síndrome de asperger y tea)*. Hemendik eskuratua: https://riuma.uma.es/xmlui/bitstream/handle/10630/15975/TD_GOMEZ_GERD_EL_Maria_de_los_Angeles.pdf?sequence=1&isAllowed=y Kontsultatua: 2019/03/30.
- Isabel Paula, J. (2011). *El autismo 70 años después de Leo Kanner y Hans Asperger*. Hemendik eskuratua: <http://scielo.isciii.es/pdf/neuropsiq/v32n115/08.pdf> Kontsultatua: 2019/03/21
- Lazcano, I. & Madariaga, A. (2017) La experiencia de ocio en las personas jóvenes con discapacidad. *Pedagogía Social: revista interuniversitaria*, 31, 109-121.
- Lazcano, I. & Madariaga, A. (2016). *El valor del ocio en la sociedad actual*. Hemendik eskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/6149004.pdf> Kontsultatua: 2019/04/20.

- Madariaga, A. (2013). *La Inclusión En Ocio De Las Personas Con Discapacidad: Una Línea De Trabajo En El Marco De La Política Social*. Hemendik eskuratua: <http://www3.uah.es/congresoreps2013/Paneles/panel4/sesion3/aurora.madariaga@deusto.es/TCAurora.pdf> Kontsultatua: 2019/04/19.
- Madariaga Ortuzar, A. (2004). *Acortando la distancia entre el ocio integrador del ocio inclusivo*. Hemendik eskuratua: <http://www.deusto-publicaciones.es/deusto/pdfs/ocio/ocio28.pdf> Kontsultatua: 2019/04/23
- Madariaga Ortuzar, A, Lazcano Quintana, I. & Doistua Nebreda, J. (2011). El valor de la inclusión en el ocio. Una estrategia de actuación centrada en la juventud con discapacidad (pp 279-292). In A, Madariaga & J, Cuenca, *Los valores del ocio: cambio, choque e innovación*. Bilbao: Universidad de Deusto.
- Miguel Miguel, A. (2006). *El mundo de las emociones en los autistas*. Hemendik eskuratua: https://gedos.usal.es/jspui/bitstream/10366/56512/1/TE2006_V7N2_P169.pdf Kontsultatua: 2019/03/15
- Perez, A. (2013). *Trastorno del Espectro Autista (TEA)*. Hemendik eskuratua: <https://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/30496/1/TEA.%20Trastorno%20del%20Espectro%20Autista.pdf> Kontsultatua: 2019/03/21
- Reaño, E. (2014). *La Tríada de Wing y los vectores de la Electronealidad: hacia una nueva concepción sobre el Autismo*. Hemendik eskuratua: [https://www.academia.edu/11795285/La Tr%C3%ADada de Wing y los vectores de la Electronealidad hacia una nueva concepción sobre el Autismo](https://www.academia.edu/11795285/La_Tr%C3%ADada_de_Wing_y_los_vectores_de_la_Electronealidad_hacia_una_nueva_concepci%C3%B3n_sobre_el_Autismo) Kontsultatua: 2019/04/02.
- Tirapu Ustárriz, J., Perez Sayes, G., Erekatxo Bilbao, M. & Pelegrín Valero, C. (2007). *¿Qué es la teoría de la mente?* Hemendik eskuratua: https://www.catedraautismeudg.com/data/articles_cientifics/5/0ff0534e8d1b4980986ed2c1d9e4aa13-que-es-la-teoria-de-la-mente.pdf Kontsultatua: 2019/03/25

8. ERANSKINAK

1. ERANSKINA: AUTISMOA DSM-AREN IKUSPEGITIK

Hainbat DSM aurkeztu ondoren, 1980. urtean, DSM III.a argitaratu zen eta urte horretara arte, dokumentu honetan, autismoa ez zen nahasmendu bezala adierazi, izan ere, eskizofreniarekin lotua baitzegoen. Garai honetan, DSM III.an, autismoa “autismoa infantil” bezala ezagutzen edo adierazten zen eta diagnostikoa egiterako orduan kontuan izan beharrezko sei baldintza adierazi ziren.

Urteak pasa ahala, diagnostikoa egiteko erabiltzen ziren irizpideak zehazten joan ziren. Douglas-ek (2014) adierazten duen bezala, 1987. urtean, DSM III-R sortu zen eta bertan, “autismo infantil” hura, nahasmendu autista bezala txertatu zen. Gainera, diagnostikoa egiteko irizpideak zehaztu ziren eta kontu handiarekin deskribatuak izan ziren.

1994. urtean, DSM IV- a sortu zen eta geroago DSM IV- TR. Bertan, Garapeneko Nahaste Orokorra (Trastorno Generalizado del Desarrollo) kontzeptua sortu zen eta honen barruan, hurrengo nahasteak txertatu ziren:

- Autismo nahasmendua
- Rett nahasmendua
- Haurtzaroko nahaste desintegratiboa
- Asperger nahasmendua
- Garapeneko nahaste orokor ez zehaztua

Aurretik aipatu ditudan nahasmendu guzti hauek, garapeneko esparru ezberdinetan hainbat alterazio eta defizit izaten dituzte eta hori izango da, guztien artean duten ezaugarri komuna. Denbora pasa ahala, ikus daiteke mota honetako nahasmendu hauen inguruan daukagun informazioa handiagotzen doala eta gero eta ezaugarri zehatzagoak nabarmentzen direla.

DSM IV sortzean, Garapeneko Nahaste Orokorren barruan adierazten diren nahasmendu ezberdinen arteko muga edo tartea oso txikia zela eta hauen diagnostikoa

egitea nahiko zaila zela ikusi zen. Beraz, nahasmendu hauek, eta gehienbat Autismoa aztertzen jarraitu zuten.

2013. urtean, DSM V- a sortu zen. Gaur egun erreferentzia bezala daukagun DSM-a izango litzateke. Bertan, AEN kontzeptua sortzen da eta aurretik aipatu ziren nahasmendu guztiak, Rett nahasmendua izan ezik, hau da; Autismo nahasmendua, Haurtzaroko desintegrazio- nahasmendua, Asperger nahasmendua eta Garapeneko nahaste orokor ez zehaztua, Autismoaren Espektroko Nahasmenduaren (AEN) sailkapenaren barruan txertatzen dira.

DSM IV -ean, autismoarekin lotutako hamabi sintoma deskribatzen ziren, azken honetan ordea, DSM V- ean, sintoma horiek murriztu egiten dira, eta zazpi sintoma ezarri dira. Gainera, diagnostikoa egiterako orduan, bi esparru nagusi kontuan izango dira: alde batetik, arlo sozio-komunikatiboa eta bestetik, interes finkoak eta jarrera errepikakorak. Beraz, aipatu ditudan zazpi sintoma horiek, bi esparru hauetan sakabanatuak egongo dira.

Perez-ek (2013), aipatzen duen bezala, modu honetan geratuko ziren diagnostikoa egiteko irizpideak:

- Esparru sozio-komunikatiboa:
 - Arlo sozial eta emozionalean ematen diren interakzio jarreretan defizita. Arazo arinak izan daitezke; elkarrizketan txandaketa eza, interakzioaren hasiera “anormala” ...
 - Interakzio sozialik ez egotea ere eman daiteke, komunikazio jarreretan defizitak egotea; hitzezko komunikazioa edo hitzik gabeko komunikazioa (komunikazio ez berbala), aurpegiko keinuen existentzia eza...
 - Harremanen garapen eta mantenuan defizitak: beste ume batzuekin jolasterako orduan jarrera egokia mantentzeko zailtasunak izatea eta beste pertsonetikiko interes eza adieraztea.
- Jarrera errepikakor eta interes finkoen esparrua:
 - Ahozko hizkuntza, gorputzeko mugimenduak... estereotipatuak eta errepikakorak mantentzea: estereotipia motorrak, ekolaliak...
 - Ohiturak, hitzezko erritualak, hitz gabekoak, motoreak... (mota askotakoak).

- Kanpoko estimuluetan atentzio gutxi izaten dute, interes falta dela eta.
- Zentzumeneren bidez jasotako estimuluen aurrean duten erreakzioa askotan oso handia izan daiteke eta beste batzuetan oso txikia: minarekiko, beroarekiko, hotzarekiko, usainarekiko, argiekiko... pasibitatea adierazten dute edo baita guztiz kontrakoa ere.

DSM V- ean, garrantzia ematen hasten zaio sintoma guzti hauek lehen haurtzaroan agertzeari edo azaltzeari, nahiz eta hainbat arrazoi medio direlarik, askotan sintoma hauek garai horretan ezin izaten dira adierazi. Sintoma hauek direla eta, nahaste hau duten pertsonak ezin izango dute bere egunerokotasunean, modu autonomo batean funtzionatu (Perez, 2013).

2. ERANSKINA: TEORIA EZBERDINAK.

Lehenik eta behin, antzinako teoretara joko dugu. 50 eta 60. hamarkadetan, autismoa zuten umeak, atzerapen mentala zuten umeak bezala kontsideratzen ziren edo amatasunarekin lotutako harreman afektiboen menpe zeuden umeak. Douglas-ek (2014), dioen bezala, garai hartan Bruno Bettelheim psikoanalistak garrantzi handia eman zion gurasoen afektuari eta haurrek gurasoekin zuten harremanari. Beraz, autismoa afektu eta harreman horiekin zuzenean lotzen zuen. Garai hartan amek, beraien seme-alabak ukatzen zituzten eta horrek haurrengan eragin zuzena zuen. Gainera, aita oso hotzak ziren eta seme-alabengandik urrundu egiten ziren. Hortik bilatu zuen berak, autismoaren teoretako bat “refrigeration mother`s”.

Teoria honek indar handia jaso zuen eta asko zabaldu zen. Bere heriotzaren ostean, Douglas-ek (2014) dioenaren arabera, hainbat zurrumurru atera ziren Brunoren inguruan eta bere teoria gehienek balioa galdu zuten, beraz, gaur egun teoria hori guztiz ukatua dago.

Urteak pasa ahala beste hainbat teoria eta azalpen sortzen joan ziren. Gai honekin lotuta, adimenaren teoriaren inguruan hitz egin beharra dago. Izan ere, teoria honen bitartez autismoa duen pertsona baten hainbat ezaugarri sakonki aztertu daitezke, alde

emozionala eta alde kognitiboa kontuan izanda. Gainera, honek nahaste hau duten pertsonen hainbat jarrera hobeto ulertzeko aukera ematen digu.

Ustárróz, Sayes, Erekatxo eta Valero-k (2007) diotenaren arabera, adimenaren teoriak, beste pertsona batzuen jarrera, ezagutzak eta sinesmenak ulertzeko eta aurreikusteko gaitasuna aztertzen du. Testu honetan adierazten den bezala, teoria honen sorkuntzan, Baron- Cohen-ek, autismoa duten pertsonen adimen teoriarik ez dutela adierazi zuen.

Adimen teoriaren arabera, gaitasun hau garatu ahal izateko, gehienbat gaitasun meta-kognitiboak garatuak izan behar ditugu; emozioen aitortzea aurpegian, lehengo eta bigarren mailako sinesmenak, komunikazio metaforikoak (ironia, gezurrak eta gezur errukiorrak), hanka sartzeak, begiradaren bitarteko adierazpen emozionala, eta bukatzeko, empatia eta juizio morala.

Azterketak egin ostean, ikus izan daiteke nola AEN duen pertsona batek, honelako arlo ezberdinetan arazoak edo zailtasunak izan ahal dituela, gehienbat pentsamenduen inguruan pentsatzeko eta hausnartzeko gaitasun falta dutelako. Horregatik, Miguel-ek (2006) nahaste hau duten pertsonen komunikazioan, irudimenean eta gaitasun sozialetan zailtasunak azaltzen dituztela adierazi zuen.

Gainera, adimen teoria honekin lotuta, Miguel-ek (2006) “ceguera mental” izeneko kontzeptuaren inguruan hitz egin zuen. Izan ere, beste pertsonen pentsatzen edo sinesten dutenaren inguruan pentsatzeko gaitasun eza adierazten dute. Imajinazioa erabiltzea ere asko kostatzen zaie, beraz, ekintza edo jarduera mekanikoak egiteko gaitasuna badute, baina imajinazioa erabiltzerako orduan zailtasunak adierazten dituzte.

Emozioei dagokienez, beste pertsonen emozioak identifikatzea eta ulertzea oso zaila izaten da eta beraienak adieraztea ere bai. Komunikazio metaforikoei erreparatuz, Happe-k autismoa zuten ume batzuekin hainbat proba egin zituen, besteek dituzten intentzioak identifikatzeko gai diren edo ez jakiteko. Bertan ikusi zen, nola ironia, gezurrak eta gezur errukiorrak identifikatzeko hainbat zailtasun adierazten duten (Miguel-ek 2006 aipatua).

Adimenaren teoriaren inguruan hitz eginda, garai hartan ikusi zen teoria honek ez zituela Autismo nahastea zuten pertsonen ezaugarri nagusi guztiak biltzen. Horregatik,

Darretxe-k eta Sepulveda-k (2011) adierazten duten bezala, Uta Firth-ek (1989) koherentzia zentralaren teoria sortu zuen. Teoria horren bidez, AEN duten pertsonen hurrengo ezaugarriak aztertu ziren; errutina bat mantentzearen beharra, ardua obsesiboak izatea eta gauzen inguruko atentzio nabaria. Izan ere, ezaugarri hauek ez ziren adimenaren teoriarik argitzen.

Koherentzia zentralaren bitartez, gauzak ahalik eta hoberen ulertzeari garrantzia ematen zaio eta horretarako, testuinguruak pisua eta garrantzia jasotzen du, testuinguruaren eta egoeraren inguruko azterketa bat eginez eta ahalik eta datu gehien bilduz, honela, gertatu dena hobeto ulertzeko. Hau izango litzateke koherentzia zentralaren ikuspuntutik, AEN duten pertsonen zailtasunetako bat.

Teoria honekin batera, Darretxe-k eta Sepulveda-k (2011), funtzio exekutiboaren inguruan hitz egiten dute. Izan ere, adimenaren teoriatik kanpo dagoen kontzeptu bat da baina, AEN duten pertsonen ezaugarrietako bat ere izan daiteke. Funtzio exekutiboek, arazoaren ebazpen egokiaren inguruko gaitasunari erreferentzia egiten die. Historian zehar, ikusi izan da funtzio edo prozesu kognitibo horietan, AEN duten pertsonen zailtasunak adierazten dituztela.

3. ERANSKINA: AISIALDIA ETA DENBORA LIBREA, AISIALDIRAKO HEZKUNTZA.

Cuenca-k (2011) aisialdirako hezkuntza kontzeptuaz hitz egiten du. Honek aisialdiarekin lotutako jarrera, trebetasun, ezagutza, portaera eta balioen inguruko ikasketa prozesuari egiten dio erreferentzia. Aisialdirako hezkuntza hau, bizitza osoan zehar zabaltzen den kontzeptu bat da, izan ere, gurekin batera garatzen doa. Gainera, kalitatezko aisialdia izateko aukerak eta tresnak eskaintzen dizkigu. Hurrengo zerrendan, autore honek aisialdiaren bitartez jaso daitezkeen onurak adierazten ditu:

- Inklusio komunitarioa, ulermena, eta identitate kulturala.
- Giza eskubide bezala aitortzen da.
- Ikasi eta sakabanatu behar den ezagutza iturria da.
- Garapen sozial eta pertsonala sustatzen du.
- Bizi kalitatea handiagotzeko tresna bezala erabiltzen da.
- Aisialdiko zerbitzuez gozatzeko aukera ematen du.

- Bizi osoko ikaskuntza bultzatzen du.
- Aisialdiko beharrak asetzeko aukera ematen dio pertsona guztiei, oztopoak murriztuz.
- Komunitate inklusibo bat garatzeko aukera ematen du.
- Eskubide natural eta kulturalak errespetatzen ditu.

4. ERANSKINA: AISIALDI INKLUSIBOA

Madariaga- k (2004) dioen bezala, inklusioa giza eskubideen esparru bat da. Beraz, honen oinarrietako bat, gaur egungo gizarteak, gizaki guztion beharrak asetuak izan behar dituela izango da, bakoitzaren ezaugarri partikularrak edo baldintzak kontuan izan gabe. Inklusioak, hiru dimentsio kontuan izan behar ditu: kultura inklusiboen eta politika inklusiboen sorkuntza eta praktika inklusiboen garapena. Inklusioak, gizarteko hainbat maila ezberdinetan eragina edo presentzia izan behar du; balioetan, laguntzazko politikan, praktikan eta baliabideen planifikazioan.

Aisialdiari dagokionez, Madariaga- k (2004) aisialdi inklusiboaz hitz egiten digu. Gizarteko aisialdia inklusiboa izateko, hurrengo kontzeptuak argi izan behar ditugula dio eta ondoko esku-hartze inklusiborantz bideratzen gaitu:

- Dibertsitatea zerbait positibo eta aberasgarri bezala edukitzea.
- Komunitate eta pertenezia sentimendua izatea. Aukera, eskubide, parte hartze eta presentzia sozial berdinak izanez.
- Harreman inter- pertsonalak sustatu. Aisialdiko erabilera eta sarrera izatea, denak gizartearen parte izatea, gizarte flexible bat sortzea.
- Ezberdintasunak onartzea eta aberasgarri bilakatzea. Parte hartzeko aukerak sortuz, askatasuna sustatuz, autodeterminazioa eta garapena bultzatu, dibertsitatearekiko errespetua adierazi, testuingurua antolatu eta beharretara egokitu, beharrak eta mugak zeintzuk diren ezagutu, etab.

5. ERANSKINA: APNABI-KO ZERBITZU EZBERDINAK

Hurrengo hauek dira aisialdia eta denbora librearekin lotuta dauden eta elkartetik eskaintzen diren jarduerak:

PROGRAMA LUDIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> - Eguneko irteerak - Aisialdia eta denbora libreko klubak
JAIETAKO PROGRAMAK	<ul style="list-style-type: none"> - Ospakizunak, jaietan parte hartzea, komunitateko ekitaldiak...
OPOR ETA TURISMO PROGRAMA	<ul style="list-style-type: none"> - Udako udalekuak - Inersoa
KIROL PROGRAMA	<ul style="list-style-type: none"> - Ingurumen jarduerak - Mendi ibiliak - Gimnasia - Kirol anitzak
BALIABIDEAK BILATZEKO ETA KUDEATZEKO PROGRAMA	<ul style="list-style-type: none"> - Bitartekaritza lana komunitatearekin

- Eguneko irteerak: Jarduera horien xedea da baliabide bat eskaintzea, AEN-a duten pertsonen ohikoaz bestelako egun batez goza dezaten landa edo hiri inguruneetan, betiere inguruko bizitzan parte hartzerantz bultzatuz.
- Aisialdia eta denbora libreko klubak: Gazte eta heldu taldeentzako topaguneak. Beren denbora eta aisialdi aukerak antolatzen ditugu, harreman sozialak sustatuz izaera komunitarioko jardueretan parte hartuta.
- Inersio: Oporren programa berezia: Aisialdi programa honek desgaitasuna duten pertsonen ahalik eta garapen pertsonal eta sozial handiena lortzea du helburu, eta horretarako, aisialdi, kultur edo natur ondasunetara hurbilazten ditu.
- Gimnasia: Kirol arloko jarduera ludikoa, kirola egiteko makinak eta kirol jokoak erabiliz.
- Kirol anitzak: Kirol arloko jarduera ludikoa, ariketa fisikoa egiteko hainbat kirol eginez.
- Komunitateko Baliabideak Bilatu eta Kudeatzeko Programa: APNABI-Autismo Bizkaia Elkarteak Aisialdi eta Denbora Libreko Eremuak bitartekaritza-lana egiten du AEN duten pertsonen interesak aisialdiko eskaintza komunitarioekin bateragarri egiteko eta, modu honetan, udal, auzo eta abarren hurbileko jardueretan parte hartzeko.

6. ERANSKINA: JAKINARAZPEN BAIMENA

CONSENTIMIENTO INFORMADO PARA LA RECOGIDA DE DATOS DEL CLUB DE OCIO Y TIEMPO LIBRE DE APNABI.

Tipo de Proyecto:

Pequeña investigación sobre el Ocio y Tiempo Libre de las personas con TEA.

4º año del Grado en Educación Social, de la Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU).

Título del Proyecto: Análisis del Ocio y Tiempo Libre de las personas con TEA.

Proyecto presentado por: Amaia Boto Gaztelurrutia.

Soy estudiante del cuarto año del Grado de Educación Social de la Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU). Durante este semestre tengo que llevar a cabo una pequeña investigación que pretende analizar el ocio y tiempo libre de las personas con TEA.

Este proyecto de investigación tiene como objetivo el análisis del ocio y tiempo libre de las personas con TEA.

Para la recogida de información se utilizarán las siguientes técnicas de recogida de información; la observación participativa, la entrevista y una dinámica de grupo.

La información obtenida en el proyecto únicamente se utilizará para los fines específicos de este estudio.

La participación en este estudio es voluntaria. La información que se recoja será confidencial y no se usará para ningún otro propósito ajeno a los de esta investigación.

Si tiene alguna duda sobre este proyecto puede realizar preguntas en cualquier momento e igualmente puede retirarse.

..... (NOMBRE DE LA PERSONA PARTICIPANTE) he sido informado sobre este proyecto y acepto a participar voluntariamente en esta investigación.

Firma de la persona que participa

7. ERANSKINA: BEHAKETA PARTE HARTZAILEAREN BIDEZ JASOTAKO DATUAK BILTZEKO TAULA.

Eguna:	Ordua:	Lekua:
Zenbat partaide:	Ekintzaren iraupena:	
Ekintza:	Parte- hartzea/ Ebaluazioa:	

8. ERANSKINA: TALDE DINAMIKA

Esan dudan bezala, taldea lau neskek osatzen dute, dinamika larunbat arratsalde batean egin genuen, klubeko orduak aprobetxatuz, baina kide bat ezin izan da etorri, beraz, dinamika hiru kiderekin burutu dugu. Taldea osatu duten hiru neskek eta gu, bi monitoreak, eguneko zentroko mahai batean eseri gara, borobilean. Borobil horren erdialdean, kaxa bat ipini dut eta kaxa horren barruan papertxo ezberdinak. Paper bakoitzean, galdera edo amaitu gabeko esaldi ezberdinak egon dira.

Hurrengo hauek izango dira papertxoetan jarriko ditudan galderak:

- Ondo pasatzen al duzu klub-era zatozenean?
- Gaur goizean, kluba zenuela jakin duzunean zer nolako sentimenduak edo pentsamenduak izan dituzu?
- Jende berria ezagutu duzu klubean? Lagun berriak egin dituzu?

- Denbora librea dudanean egitea da gehien gustatzen zaidana.
- Apnabiko aisialdi eta denbora libreko klubak -rako erabilgarria egin zait.
- Klubeko kideekin egiteko gehien gustatzen zaidan ekintza da.
- Aipatu klubak dituen bi alderdi on eta beste bi alderdi negatibo:

.....

.....

Partaide batek, kaxako paper bat hartu du eta bertan dagoen esaldia denontzako irakurri du. Behin denok galdera edo esaldia ulertua daukagunean, bakoitzak post- it batean bere erantzuna idatzi du. Honela, anonimotasuna errespetatzen da eta gainera, ez dute lotsarik sentitu, bakoitzaren erantzuna zein den ez delako jakin.

Erantzuna idatzita dugunean, bakoitzak bere posit-a paretan kokatuta dagoen kartulina batean itsatsi du. Kartulina horretan, esparru ezberdinak adierazi ditut, hau da, esparru bakoitzak, gai ezberdin bati erreferentzia egin dio: sentimenduak, ekintzak eta iradokizunak. Hurrengo argazkiak ikus daitekeen bezala:



Galderaren arabera, posit-ak kartulinako esparru batean edo bestean kokatu ditugu. Honela geratu da gure kartulina dinamika egin ostean:



Honela, partaide bakoitzak kaxako papertxo bat irakurri du eta galdera guztiak erantzun ditugu. Dinamikarekin bukatzeko, hausnarketa txiki bat egin dugu, kartulinan dauden emaitza ezberdinak irakurritz. Modu honetan, aisialdiko eta denbora libreko klubetik jaso dituzten alderdi positiboak nabarmentzeko aukera izan dugu.

Behin klubeko ekintza bukatuta, hurrengo erantzunak atera ditut dinamika honetatik:

1. Ondo pasatzen al duzu klub-era zatozenean?

- **1.partaidea: Sí, porque nos echamos unas risas.** *Bai, barre batzuk egiten ditugulako*
- **2.partaidea: Sí, porque hago amigas y también para tranquilizarme.** *Bai, lagunak egiten ditudalako eta lasaitzeko.*
- **3.partaidea: Si, porque hacemos actividades muy chulas.** *Bai, ekintza politak egiten ditugulako.*

2. Gaur goizean, kluba zenuela jakin duzunean zer nolako sentimenduak edo pentsamenduak izan dituzu?

- **1.partaidea: Felicidad.** *Zoriontasuna*

- **2.partaidea: Alegría y también he pensado que me puedo desahogar.**

Poztasuna eta barrukoa askatzeko aukera dudala.

- **3.partaidea: Contenta.** *Pozik*

3. Jende berria ezagutu duzu klubean? Lagun berriak egin dituzu?

- **1.partaidea: Si, he hecho muchos amigos.** *Bai, lagun berriak egin ditut.*

- **2.partaidea: No he hecho ningún amigo nuevo y si he conocido gente nueva.**

Ez dut lagun berririk egin eta bai jende berria ezagutu dut.

- **3.partaidea: Si, pocos.** *Bai, gutxi*

4. Denbora libre dudanean egitea da gehien gustatzen zaidana.

- **1.partaidea: Bailar, pasear y disfrutar.** *Dantza egin, paseoak eman eta disfrutatu.*

- **2.partaidea: Pescar, sacar al perro, ir de pulserita y hablar con las profesoras.** *Arrantza egitera joan, txakurra atera, pulseritarekin joan eta irakasleekin hitz egin.*

- **3.partaidea: Dar paseos por Bilbao y leer.** *Bilbotik paseatu eta irakurri.*

5. Apnabiko aisialdi eta denbora libreko klubak -rako erabilgarria egin zait.

- **1.partaidea: Comprender que hay diferentes personas.** *Pertsona ezberdinak daudela ulertzeko.*

- **2.partaidea: Para tranquilizarme de los problemas de la ikastola y jugar con mis amigas.** *Eskolako arazoez lasaitzeko eta lagunekin jolasteko.*

- **3.partaidea: Desahogarme cuando he estado mal y me habéis ayudado.** *Txarto egon naizenean barrukoa ateratzeko eta lagundu egin didate.*

6. Klubeko kideekin egiteko gehien gustatzen zaidan ekintza da.

- **1.partaidea: Pasear y disfrutar.** *Paseatu eta gozatu.*
- **2.partaidea: Ir a jugar a los bolos.** *Boloetan jolastera joan.*
- **3.partaidea: Los billares y los bolos.** *Bilarrera eta boloetara jolastu.*

7. Aipatu klubak dituen bi alderdi on eta beste bi alderdi negatibo:

- **1.partaidea: Las monitoras y las compañeras.** *Begiraleak eta nire kideak.*
- **2.partaidea: Cosas buenas las profesoras y las compañeras. Las cosas malas cuando no me gusta la actividad y cuando estoy enfadada.** *Gauza onak irakasleak eta kideak. Gauza txarrak, ekintza gustatzen ez zaidanean edo haserre nagoenean.*
- **3.partaidea: Las monitoras.** *Begiraleak.*

9. ERANSKINA: APNABIKO AISIALDIA ETA DENBORA LIBREKO ARDURADUNARI ELKARRIZKETA.

- **El ocio y tiempo libre es una parte importante para garantizar o fomentar el disfrute de la vida plena de cada persona. ¿Se respeta el derecho al ocio y tiempo libre de las personas con TEA? ¿Cómo? Aisialdia eta denbora libre garrantzitsuak al dira pertsona bakoitzak bere bizitza guztiz gozatzeko? AEN duten pertsonen aisialdia eta denbora librearen eskubidea bermatzen edo errespetatzen al da?**

Nosotros tenemos claro en Apnabi y en el servicio de Ocio y Tiempo libre que el ocio es un derecho, esto no es sabido por todo el mundo. Es un derecho además, recogido en la convención de la ONU sobre los derechos de las personas con discapacidad y en algunos artículos, no solamente de la ONU, sino en nuestra propia constitución se hace referencia a esta característica del derecho. SE habla de participación en la vida cultural, actividades recreativas, derecho también a actividades que tengan que ver con el esparcimiento, con el deporte y hace mención a que las personas con discapacidad tienen derecho a tener acceso en igualdad de condiciones a este tipo de actividades.

Ahora, el ¿cómo lo hacemos? Pues desde Apnabi, sobre todo lo que pretendemos es garantizar este derecho y todo nuestro servicio tiene sentido porque creemos en él. Lo

que hacemos sobre todo nosotros es, pues generar oportunidades para las personas, diseñamos en función de las necesidades, los intereses, los gustos, las preferencias que ellos tienen, las aficiones... Actividades que al final les puedan de alguna forma proporcionar a ellos en defensa a este derecho, actividades, pues, que les satisfagan, que les entretengan, que les enriquezcan como personas porque el ocio y tiempo libre, conlleva mucho más que dedicar un tiempo que está ahí.

Pero no lo queremos hacer de cualquier manera, queremos que ellos también tengan como cualquiera de nosotros, un tiempo libre que sea como dicho enriquecedor. Que esa es la diferencia no, que sea significativo para ellos.

¿Cómo trabajamos este derecho al ocio? No solo dentro de la organización, dentro de la entidad, dentro de Apnabi, sino también defendemos este derecho en pro de las personas con TEA en este caso, trabajando con el entorno. Es muy importante. Todo lo que hacemos, digamos que nuestro máximo reto, va a ser mejorar la calidad de vida, siempre trabajando con principios inclusivos. Cuando hablamos de inclusión, lógicamente no podemos dejar de hablar de esa relación que tenemos con el entorno, es como un binomio que no puede, es un tándem que tiene que complementarse y estar siempre juntos.

Hacemos mucha defensa de ese derecho cuando decimos siempre que utilizamos los recursos que hay en el entorno, que hay en la comunidad. Para visibilizar que todas las personas, en este caso las personas con TEA, también tienen derecho a disfrutar de las actividades y de los recursos que están a su alcance, en su entorno, en su barrio, en su localidad... como cualquier otra persona, nos hacemos eco de todas esas actividades y trabajamos. Luego ya veremos seguramente de qué manera y como lo hacemos también con el entorno. Creemos tanto en este derecho que, como he dicho al principio, existe este servicio para trabajar en defensa y para procurar diseñar, generar, todas las oportunidades pensando en todo el espectro, que nos solicita esa ayuda, ese apoyo para tener un tiempo libre que sea también satisfactorio y que sea también en igualdad de condiciones que el resto de sus compañeros, hermanos, vecinos, etc.

